

TTiPi-TTAPA

BAZTAN / BIDASOA / MALDA ERREKAko

aldizkaria

1985'ko otsaila 11. zenb

ERRATZUKO MOBIDA

NEURAK, PROBLEMAK, ERREIBINDIKAZIO..
....BIZIAN GOGORTASUNA ETA
BIZITZEKO GOGOAK AGERTU
EIREN.....JOZZPST

PRUFFP

AUXE DUK
AUXE DA
GURE

DESTINO
PETRALA
AUXE
AUXE

¡URRUNGOA ARTE!!

ANTOLATZAILEAN
ALDETIK
ESKERRIK
ASKO!

Zorroxin
irratia

ASKATASUN
ALDEKO HOTSA.

NON-ZER



2-6. Berriak
7. Klemente Ezkurdiaren bertso batzuek
8. Kapitalismoa edo tortura
10. Lanaaberia eta ordu extrak
12. Arma bat har ezazu, horrek lagunduko zaitu.
13. Euskal preso politikoak.
14. Europako Ekonomi elkartearen helburua
16. Ipuiak
17. Lesakako ikastola.
18. Diostesalbeko koplatik Nafarroako bertsolari txapelketa
20. Eguberrietan ere gizona beti bezain bakar
21. Adiosa Bordatxori
22. Erasungo pregon zahar haiek
24. Bortz herri euskaldunak zirela aditu nuenean...
27. DYA gure inguruetan.
28. Hauran toxikazioak.
29. Berako meudietako zuhaitzak.
30. S.O.S. Natura hiltzera doa.
31. Bertsoak eta ipuiak.
32. Ipuia.
36. Aizkorrin zehar.
38. Bertsoak.
40. Alkeaibereko Juan Esteban de Errandonea
42. Kontuak.

ARANTZA

NEKAZARI KOOPERATIBAREN INAUGURAZIOA.

Ilbeltzaren 20ean inauguratu zen «Bortzak Bat» deritzan kooperatibak eraiki duen egoitza berria. Duela urte bete hasi ziren lanak eta azkenik helburua lortu da, nahiz eta ez den erraza izan, zeren bazkide batzu kanpora atera eta beste kooperatiba bat eraiki baizuten.

Irteera honen arrazoiak politikoak izan ziren batez ere: hau da, irteera ez zen izan kooperatibagintza ulertzeko moduan ezberdintasun ideologikoak zituztelako, kooperatibaren buruzagigoan zeuden bazkideen ideia berezi batzu zituztelako herriko arazoetan baizik, eta irtendakoak etzeudelako ados idea horiekin. Hori dela eta zenbaitzuk, nekazari kooperatibak lur jo zezan zuten asmoa, baina zorionez hau ez da gertatu.

Presentazioan, ohi den bezala, anai arteko ameketakoa egin zen eta bertan azaldu ziren kooperatibaren egoera ekonomikoa, egoitza ere eraikitzerakoan azldu diren arazoak eta aurrerantzerako zenbait asmo. Hauetan garratzitsuena, errota eraikitzeko asmoa litzateke.

Osasun onean jarrai beza kooperatibak!

ELURTEAREN ONDORIOAK.

Beste leku askotan bezala, ekaizti izugarria jasan dugu Arantzan ere. Ondorioak ere nahiko nabarmenak dira. Artzaiak nahiko kopetilun ikusten ditugu, zenbait bederen, zeren elurrak berarekin eraman bait dizkie ardiak. Nekazarientzako ere zenbait ondorio txar ekarri du, arbiaren galketa batez ere. Jakina denaz, arbia da bazka berde bakarra behientzako negu gorrian, eta hau izorratuz gero esnearen jeisketa nabaritzen da.

Bestalde, abere basatiak: erbi, koneju, basurde eta egazki gaixoak gizonaren eraso bortiza jasan izan behar dute. Otza eta gosearen grinak eraginik, gizonarengana urbiltzen direnean, honek tiroka ongi etorria. Hau da mundu xelebrea!

Baina dena ez da txarrerako izanen, zeren zaharrek diotenez: «ELUR URTE, URTE ON». Ia egia gertatzen den. Gainera ezagutzen dudan aitona batek dioenez, aurten «Bidasoa» erreka ez omen da lehengo urtetan adina agortuko, zeren elurraren ura lurrean apurka sartzen omen da eta ondorioz urte guztirako erreserbak geratzen omen zaizkio lurrari, pixkanaka ura errekara irazteko.

MENDI MUTILAK LANERA BERRIKO

Frantziako ohianetan lanean iharduten Arantzako mutil gazteak, berriro ere bertara itzuli dira, beste okerrarik ez bada datorren Herriko Jaiak arte. Duela urte batzu, jende franko joaten zen mugaz bestalderuntz eguneroko ogia ateratzearren. Orain guttigo badira ere, hamarren batek dute ohiangintza bizi bidea.

Uda garaiean ez dute besta egiterik izanen, zeren ohianean ez bait da jairik izaten eta horregatik neguan egunak ongi aprobetxatzen dituzte besta egiteko.

Batez ere iragan berriak diren ihauteriak eta Arantzan Errege egunean urtero egiten den mendi mutilen besta. Suerte ona izan dezaten eta laister gure artean izan ditzagun da gure nahia.

ETXALAR

ORTZEGUN GIZEN

Etxalarko haurren artean mugida haundia sumatzen zen. Otsailaren 14-ean ospatu zen beren inauteri eguna, ORTZEGUN GIZENA.

Goiz-goizetik, nexka-mutikoek, hiruna edo launaka, saskia eskutan, etxez etxe ibili ziren. «Urtzain gizen, zingar arraultze, bat ez bada bertze». Kanta hau, zintzur gazteek behin eta berriz errepikatu zuten. Ortzegun gizen-aren adierazle gintugun.

Egunean zehar gero eta gehiago, bi-hiru urtetik hasi eta hamalau urte arteko nexka-mutikoak antzaldatzen ziren: amatxi, bizardun, atsozar, ipuinetako pertsonaien itxurak harturik. Jazkera eta kolore desberdinez karrika bete zen. Karrikaz karrika, antzerki zatiak egiten zituzten, 1.mailako eta 2.ekoek, bakoitzak berea. Eta plazan, elkarrekin egin zuten berendua, honen ondotik bukatu zen Ortzegun gizena.

PENTSUTEGI PROIEKTOA

Nekazarien artean ere zerbaiten mugida bada. Azindarentzat janaria ekarri eta saltzen duela, hamaika urte istanteko eginen ditu «USOA» Nekazari Koperatibak. Eta urtean milioi bat kilo baino gehiagoren salmenta egiten du. Baina lekuz, batzutan estu xamar dabiltzalako, besteren etxeaz orain arte baliatu behar dutelako, eta, ekarri ez ezik, bertan pentsu zerbait egin ere eginen ote duten pentsatuz, leku berri baten bila dabiltza.

Pentsutegi haundiagoa, baina baita errota eta pentsu egiteko beste tresnak montatuz. Eta dena Koperatibarena, eta herriko nekazari gehienen onerako noski.

ITUREN

«Martxa! martxa hortikan!» zakur zikin horiek poltsa guztiak puskatzen. Baina nola demontre zakur zikin horiek? nik esango nuke organizazio zikin hau.

Gaur astelehena, zikinkeriak biltzeko eguna, gaueko hamabiak eta hauek gau pasa egiteko asmoa noski.

Joanden astean elurra eta hormak ziren trabak, horiek garbitu ziren eta oraingo hontan, zer gertatu da?

Orduan bederen dena txuri txuriz jantzita askoz ere polita eta garbigoa iruditzen zitzaigun.

Haurrak plazan jolasten ari dira, aldi berean hango andre hari begirada kendu gabe, ea lekutzen den agudo pentsatzen, poltsa naranja kolore eta zikinkeriz beterik dagoen hura hartzeko gogoz.

Martxa honetan hemen sartuko dira arratoiak eta direnak eta ez direnak. Kutsatzeko bidea besterik ez da.

Zuhaitz eta mendiz inguraturik, naturaleza bizian eta plastikozko poltsa eta kaja zaharrak, plaza, karrika bazterrean eta haurren eskola ondoan. Denak hor usteltzen.

Ez dakit ba, astelehenean neketsua dela lan hau egitea? Paratu beste egun bat, abisua pasa eta kitto.

Dena dela, boltsak ongi lotuak atera eta zikinkeriak bildu behar diren egunean, ez hor utzi bi edo hiru egun zakur eta katuen esku. Eta ez badute bildu behar bandoa bota.

A! bai, hori ere bai, zakua hartzeko mementuan zikinkeri batzuk lurrean gelditzen badira isatsa batekin bildu. Ez da aunitz kostatzen ba.

Nere ustez hemengo jendeak eta herri xarmant hauek gutxienez hori, arbitasuna merizi dute.

LESAKA

INAUTERIAK. Joan ziren Otsailaren 17, 18 eta 19an. Lesakak bere inauteriak ospatu zituen

Festa hauen hasiera noiz izandu zen inork ez daki, baina egia errateko, urtetik urtera gero eta gehiago animatzen dira herriko kaleak. Garai batean, asteartea egun handiena izaten zen Lesakan, baina beste denborak ziren beste lanak, eta honela egun honek asko edo gehiago galdu du. Aipatu dugun bezala urtetik urtera giro handiagoa izaten da, jende gehiago mairuz jazten da eta kanpotik ere jende asko etortzen da.

Urtero zerbait berria asmatzera saitzen da, ideia berriak agertzen dira, baina egitaraua gehienetan urterokoa da.

Ez dire jartzen linea batzu. INAUTERIETAN imajinazioa handia du jendeak eta edozein gauza balio du ateratzeko.

Arratsaldean eta gauez, jendea kaleratu zen, afariak antolatu ziren, bai ostatuetan, bai elkarteetan eta gero festa eta alaitasuna berandu arte izan zen. Musika etzen inoiz falta izan.

Igandean zako zaharren eguna ospatu zen. Arratsaldeko 3tan jazten hasi eta zazpiretan atera ziren kalez kale ibiltzera. Atzetik musika eta jendea ugari. Sobera hurbiltzen zenari, ZAS! pizontziarekin jotzen zuten. Bi orduz herria korritu zuten, kapitaina lehendabizi eta atzetik beste hamalau zaku zahar, enparantzan bukatzeko. Mementu batean haurrak eta ez adin haurrak, zakoak puskatu zituzten. Honen ondoren kristoren koadroa geratu zen enparantzan, belarra zoko guztietan, usai txarra etab.

Zako zaharrena, lehengo ohitur zahar bat da, denboran galtzen den ohitura. Nondik datorren, esan nahia zein den, zer erran nahi duen, inork ez daki. Urte haunitzez egin gabe egondu da, baina orain dela hamar urte errekuperatu zen.

Arratsalde eta gauez, dantza enparantzan izan zen.

Astelehena egun politena izan zen lesakarrentzat. Goizean goiz, Fraingo koadrila atera zen baserriz baserri eta eguardian herrira jeitsi zen bazkaltzera. San Antongo koadrila ere atera zen eta gauza bera. Garai batean Nabazkoak ere ateratzen ziren, baina duela hiru urte ez dira elkartu.

Herrian, beste aldetik karrozak atera ziren eta bakoitza bere erara ibili zen. Eguardian denak bazkari batean elkartu ziren eta arratsaldean «Egurra barrakari».

Asteartean Fraindarrak eta Goitarrak berriz atera ziren, baina Inauterien izena bukaera hasia zen.

Heldu den urtean, Lesakara agertu eta ikusiko duzue zein ongi pasatzen den, baina hori bai, beharrezkoa disfraza da. Giroan sartzeko mairuz jantzia ibili behar da.

BERRIZ ERE, BETI GAZTE TXAPELDUN !!! Berriz ere Beti Gazte goiko taldean dugu. Liga hasi zenean, inork ez zuen duru bat emanen talderengatik, baina egia da kristoren kanpaina egin duela. Galtzen hasi bazen, gero partiduak irabaziaz kontatzen ziren.

Azkeneko partidu arte ez zen ikusten nor izaten ahal zen txapeldun, eta Lesakan jokatu zen tituloa, 3 eta 1 irabazi zen partidua eta txapeldunak gelditu ginen puntu baten gatik.

Zortzi taldekoa zen liga, eta Beti Gazte konposatzen dutenak hauek dira:

Entrenadorea, Retegi, Miguel Angel

Jokalariak: Herrera, Angel
Sanjurjo, J. Carlos (soldaduxkan)
Txiku (soldaduxkan)
Arakues, Alberto
Txafflis
Telletxea, Pello
Agirretxe, Justo
Telletxea, Jhonny
Iantzi, Pedro Jose
Txoperena, Severiano
Aiestaran, Jesus Maria
Zamorano, Andoni
Etxepare, Kotte
Retegi, Rafael
Retegi, Jose Luis
Ordoki, J. Angel
Trigueros, Roque
Maia, Modesto
Ugalde, Gregorio
Iturria, Joaquin
Gartzia, J. Carlos (soldaduxkan)
Madariaga, Luis (soldaduxkan)
Kalixa II

BERRI TRISTE BAT. Ez da bakarrik hiri handietan gertatzen den gauza, egunero egunkarietan irakurtzen dugun bezala: gure herrietan eta modu aunitzetara, emakumea zapaltzen da. Aldi honetan, Lesakan gizon batek, emaztea jo du gaixotegira eraman izan delarik. Eta kasu hau bakarra izan balitz, baina senbat izango dira, gordetzen direnak? ASKITDA !!!

BAZTAN

BAZTANGO OHITURA ZAHARRA JARRAITUZ. Eguberri eguardian aukeratuak izan ziren herriko alkate edo «jurado» deitzen diren ordezkariak. Oiturak dion bezalaxe, irekian egin ziren hautaketak. Aurten inoiz ez bezalaxe multzoka bildu zen jendea batzarre hauetan... Herri guzietan bi alderditara jokatu zen, Iturralde zaleak eta abertzale edo euskalzaleak. Bereizketa hau ikastolaren ondorio izan zen eta garbi ikusi ere baztango herriaren nahia. Iturralde zaleak baztertuak geldi-tu baitira herri gehienetan.

gero izan diren edo nahi izan duten nahasketak ez dute deustarako balio izan jauntxoen «tripako mina» agertzeko ez bada, halako zaparrada ondotik. Hautatuak izan diren alkateak «Junta General» deitzen den erakundeko ordezkariak izango dira heldu diren bi urtetan.

KLEMENTE EZKURDIA. «Gorritti»-z ezaguna zen bertsolaria hil zaigu 80 urtekin. Baztanen bizi zen eta hemengoa izango bezalaxe baztandarra deitzen genuen. Urte aunitzez Nafarroko bertsolarien txapelketetan parte hartu izan zuen eta 1972-an omendua izan zen ere Donostian ala iaz Nafarroako bertsolarien txapelketan. Mariano Izetarekin maiz ikusten ziren bertsolarien inguruan, ala ere biek elkarrekin urtero topo egiten zuten Baztandarren Biltzarra egunean bazkari ondoko jai aldian. Mariano bere hitz xamurrarekin eta Klemente bere bertsoekin. Elkarte honek iaz nahi izan zion omenaldi berexi bat egin baina osasuna faltan atzeratu egin zion. Gizon ttipitto, erne eta euskalzale amorratua izan den Gorritti urte aunitzez oroitua izango da baztandarrengandik bere bertsotan.

BAZTANGO IKASTOLAK PAUSO SENDOA EMAN DU. Iturralde jaunak ezin garraiatu izan duen laguntza Diputaziotik, Ikastolako gurasoek lortu dute. Laguntza hau, ikastola berri edo El Pilar deitzen den ikastetxea erosteko behar diren diruetatik erdia ordaintzean dago. Hau lortu dela eta beste pausoak Udal Etxeak eman behar ditu, ikastola munizipala den geroztik.



Ikastolak bere borrokarekin jarraitzen du eta garbi argiratzi du Udal Etxearen eskutan dagola laguntza hoiek biltzea. Hortarako erne ibili, nahi izan eta erresponsabilitatea beharrezkoak dira. Ikusiko.

BAZTANGO HERRIETAN beste herrietan bezalaxe ihauteriak ospatzen ari dira. Baztan aldean ihauteri berexi bat badago. Arizkungo herrian ospatzen da eta Artza ihauteria bezala ezagutzen da. Artza inguruan beste pertsonai berexiak ere ibiltzendira eta bere dantza hautatuak dauzkate egun horretarako.

Beste aldetik aurtxoak ere egin dute beren orakunde besta, hau herri guzietan egiten da eta behar bada lehengo gizonkunde eta emakunde egunetatik dator. Azken hauek Baztan aldean ia ez dira ospatzen.

AITA JORJE RIEZU, kaputxinoa, laister omendua izango da bere lan eta jakintasun handiaren aitorpenean. Aita Jorje aspaldiko urte hauetan aita Donostiren kantan apitzen ari da ala berak eramaten du aren musikaren publkazio lanak. Aita Donostiren bizia ere idazten ari da eta laurogei urte gora izanik, gau eta egun lanari lotua jarraitzen du Lekarozko konbentu zaharrean. Aita Jorjek berak ere bildu izan ditu Nafarroko kanta zaharrak eta gaur egun folklorista hoberenetariko bat dugu.



BERA

HEMENDIK AINTZINERA NOLAKO BERA NAHI DUGU?

Hirigintzako arauteri berria prestatzen ari dela eta, Herrikoetxearen ganbaran izan ginen, petraletatik zintzilik ziren planoak ikusten.

Sartu eta berehala 1981ean Bortz Herritako bizilagunen kopurua, zenbat emakumezko eta zenbat gizonezko, lanaren datuak etab. irakurtzen ahal ziren. Beran 3.454 bizilagun ginen 1981ean eta 1975etik ordura ehunetik 27,4ko gorakada izan zen. Urte beretan Lesakan 2.943 bizilagun 9,8 gorakadarekin; Etxalarren 835 bizilagun 9,7 beherakadarekin; Arantzan 723 bizilagun 6,8 beherakadarekin eta Igantzin 607 bizilagun 7,8 beherakadarekin.

Planoak ikusten jarraituz bertze batera hurbildu ginen eta kolore biziz pintatua etxe sailkapen bat agertzen zen. Sailkapen hau, etxeak bota edo erori egiten balira, berriro altxatzeko edo etxean zerbait aldakuntza egin nahi bada, ikusteko litzake. Badira etxeak, behin erori edo bota ezkero, orain diren bezala berriro egin ezingo direnak, adibidez Dorrea taldea, «Maritxu» ostatua dagoen etxea, Berako Fabrika Zaharra, Txantreren biltegia. Inolako moduz berriz egin ezingo direnak ere, hutsa behar den lekua hartzen dutelako badira, adibidez Eztegaran eliz aldera diren blokeak, «Yanci» taldea, koartel berria, Ibaiondo blokea...

Hurrengo planoan herriaren zati bakoitzari zein enplegu eman behar zaion ikusten da. Alderdi dotazionalak, hau da herriaren zerbitzutarako (eskolak, koroldegiak, eritegiak, etab.) Toki onatik hasita hiltegiraino eta Kaxernaraino hartzen dute. Bertze honelako zatia «Sagrado Corazon» ikastetxea, Agesta eta Eltzaurpea sartzen delarik baita Garaiarren ur garbigailua jartzekoa. Lantegietarako lekua ere argi ageri den: hilerritik hasita Arratarainoko zelaietan baita Zalainekoetan, fabrika handientzat. Kantina inguruetan lantegi ttikietako lekua altxatzen da. Egoitz gunea hirigunen inguruan dago etxe ttikiak egiteko: Bidasoa kalean, Ugalzubiko zelaietan, etab. Blokeak, burgako zelaietan izango dira. Merkataritzako Lizuniagan Bentak egiteko posibilitatea ikusten da. Lekuak 15.250 m2 du; hoietatik 5.170 pribatuak direlarik. 7 etxe egiten ahal dira: teilatua bi uretara eta behera, oin bat eta ganbaraz konposatuak, dentara 8 metro goieraz eta 14 x 18 luzera eta zabalera dituztelarik. Labrantzarako lurrak (sualo haundienak): Ugalzubitik hasita, Garatxeko Bordan barrena, Illekuetako inguruetatik Lamixeneko zelai eta maldetaraino eta Agerra aldera diren Kaxernako aldapak aipatuko ditugu. Agerran bertan, Bidasoa bazterrean diren zelaiak baita ere. Mendian, Postaseko zelaia eta Xantel Errekaren inguruko lurrak ere aipagarriak dire.

Etxe berriak egiteko, lau lur mota bereixten dira:

1.- «Bereziki zaindua», izena duena: Lur hauetan etxerik ezin da egin. Leku hauek zuhaitzentzat dire, jendeak ibili eta paseiatu dezaten.

2.- «Interes duena», izenekoa: Zati honetan diren lurrak, zuhaitzak berritzeko altxatzen dira eta hauetan etxerik ezin da egin. Bertze lur batzu badire, nekazaritzako lehen mailakoak direnak eta hauetan etxea egiteko guttienez 10.000 metro kuadroko soaloa beharko da, bertze betebeharrak ere dituelarik.

3.- «Komun generikoa», izena duena: Lur hauek labrantzarako 2. mailakoak dira, belategi, ohian eta pinu landareak egiteko lurrak. Hauetan etxe bat egiteko 5.000 m2 lur zatiak guttienez beharko ditu, aldapak ehunetik 15 baino gehiago ez du behar eta etxol bat bertzerik ezingo da egin.

4.- «Baserriguneak»: Hiru etxe baino gehiago den lekuari deitzen zaio horrela. Etxea egiteko, lurrak 150 metroko erradioa beharko du eta aldapa ehuneko 15 baino gehiagokoa ez. Egoitza erabilketa edo nekazaritzarako izango da. Etxetik etxera 100 metro baino gehiago 75 metro baino guttiago ez da izanen.

Bide berriak eta zentzu aldakuntzak ere badire arautegi hauetan:

Altzateko karrikaren trafikoari irten bidea emateko, bide berri bat eginez. Toki onatik hasita « Ricardo Baroja» eskolarenjolas lekuak guruzatzen dituelarik Ugalzubiaren barrena erreka bazterretik Tantalabaita, Zelaia, Enparantza eta Ibardingo errepideraino bi zentzutakoa izango da. Altzateko Herrikoetxetik hasita enparantzaraino eta zineko estrata zentzu bakarrean izango da. Miguel Martinezen zerrategiaren atetik Ugalzubiko zubiraino zentzu bakarreko bide berri bat eginen da baita. Bide berriak ere «Telefonika»ren etxe berriatik Xubilxabaleraino eta bertzea Botxoren paretik «Industrias Lan» den pareraino izango dira.

Bariantea, trenabidez izango da Estazioko zubitik Gorria etxearen urbileraino eta handik Alkaigako zelaietan itzuli zabal bat emanez, Arratara aterako da.

Hirigintza Arautegi - normas subsidiarias.
Kopuru - cantidad.
Sailkapen - clasificacion
Talde - grupo
Biltegi - almacen
Kiroldegi - campo de deportes
Eritegi - hospital
Hiltegi - matadero
Ur garbigailu - depuradora
Hilerri - cementerio
Egoitz gunea - zona residencial
Hirigune - casco urbano
Merkataritza - comercio
Oin - planta
Mota - clase
Maila - categoria
Baserrigune - zona rural
Zentzu - sentido
Babespen - proteccion
Errepide - carretera

KLEMENTE EZKURDIAREN BERTSO BATZUEK

Zeruko aita eman zaidazu
argitasuna eta patzientzia
zerbait egi esan dezadan
kargatu gabe kontzientzia
Orain ugaritu
digute bigilantzia
nahiago nuke akitzen
balitza biolentzia.

Loa trankile ezin
egin baserrietan
zakurrak sokatik dabiltz
alemanen plantan
bandera española ez bada
makilaren puntan
iñor ez daiteke ibili
gaur mendi hauetan.

Uste dut zakur hoiek ardiak
dituztela ikaratuko
neroni artzai ibili ez banintz
ez nintzan gogoratuko
kaiku txikiak aski dituzte aurten
ardiak jeiztera joateko
esperantza txarra aurten
gaztanbera mamia jateko.

Aguantatzen ez da erreza
ematen duten lata
onerako izan dadila
hauen hemengo buelta
on askorik egiteko
esperantza falta
asto zahar bat tirokatu dute
elefante delata.

Hola ibiltzerik etzuen agindu
gure aita Jaungoikoak
pasatzen ari gara
noski oraindinokoak
hor konpon dabiltza
gu bezalakoak
orain indarra
dute harmatutakoak

Mendira maiz jotaten nintzan
gaztea nintzala
aurten aprobetxaruko dut
kaleko itzala
mendi puntan ardiak
bildur dabiltzala
zirkotako kaiolan
tigreak bezala.

Indar haundiko gazteak
agertu dira Etxalarrera
kanpoan zezen bat jota
bota dute lurrera
zezen holandesekin egin nahi
dute toreroaren karrera
diferentea izango da orain
zezen plazako sarrera.

Pultsoa ere ez da egoten
beti beti zuzena
uste zuten zela
kontrabandoko gizona
jota elbarritu dute
belaian zegon zezena
ez dakit deporte honeri
nola jarri izena.

KAPITALISMOA EDO TORTURA



Egunetik egunera zailago egiten zait hitz bi hauek bereixtea.

Gauza berdina esan nahi al dute?.

Bat bestean oinarritzen al dira?.

Edo kasu batzuetan bakarrik azaltzen al dira elkar loturik?.

Nire eguneroko bizitza arruntan kapitalismoa eta tortura, edo tortura kapitalista, edo sistema torturatzailea bizitu eta frogatu ahal izan du dut.

Nire gorputzean eta nire herriko lagun guztien gorputzean, heuren atzaparrak hezurretaraino sartu diskigute eta egunero hortan daude.

Alajaina! Zuen herrian denak komisaldegietatik pasatu al dira? Galdetuko luke norbaitek.

Noski ezetz!.

Baina komisaldegietara bakarra mugatzen al da tortura?.

Ez, ez dut uste. Zoritxarrez torturan atzaparrak komisaldegietara, herrietara, baserietara eta txoko guztietara heltzen dira.

Edo, ez al da ba torturatzea, hainbeste eta hainbeste lagun langabezian uztea, miseria eta larritasunera kondenaturik?.

Ez al da torturatzea, egunero, egunero lanaren inseguritatea bihar edo etzi, noiz edo noiz kanporatuko zaituzten zai egotea?.

Edo ez al da torturatzea, gure etxetako amak, arrebak jasatzen duten zapalkuntza, gehienetan haurrak zaindu eta etxeko lanak egitera kondenaturik?.

Edo ez al da torturatzea egunero, egunero sartzen dizkigu-

ten tabu erligioso, konplexu eta abar...

Edo ez al da tortura sistema honek sartzen digun eguneroko kultura: konpetentzi izugarria, inkomunikazioa, obedientzi itsua. Modu batera edo bestera esaten digute zenbaki bat garela, ez fiatzeko gure indarretaz. Gure laguna etsai bat bezala ikusi erazten digute.

Bai, gizarte honek pertsona inseguro eta inkomunikatiboak egiten ditu horrela beti bere eskutik eduki nahiean.

Sistema honen funtzioa asko kontsumitu eta gehiago produzitu da. Ez zaio inporta bitartean zure osasuna galduta ere. Hori ere kontsumoko produkto bat bihurtu da, botika batean eros dezakezu.

Horrela gure beharrak handitzen saiatuko dire, adibidez gerrak probokatuko dituzte, armak produzitu eta kontsumitu.

Irrazionaltasuna agertu ez dadin torturaz baliatzen dira. Modu askotako tortura praktikatzen dute, komunikazio medioen bidez, elizaren bidez, indar errepresiboren bidez , kartzelen bidez, etab. Komisaldegietako torturak zerrenda luze batean azken muturra izango litzake. Pertsonari, indibidualki egiten zaiona zuzenena, dramatikoena, gogorrena izanen da behar bada.

Historia zehar, kapitalismoa gradu bateko edo besteko tortura erabili izan du. Bat gorputza eta bestea bihotza izango balira bezela azalduz.

Torturari nahi ez baduzu, hasteko sistema hau apurtzen saiatu beharko dugu. Nik ez dut ikusten beste irtenbiderik.

aupaTON.



LANGABEZIA ETA ORDU EXTRAK

Gizarte honen arazorik haundienetarikoa dela entzuten dugu askotan, eta azkenaldi honetan maiz aski gure agintarien ahotik. Nik esango nuke beste asko ere baditugula nahiko saminak gainera, bainan langabeziaren arazoa ere ezta txikienetarikoa, zeren lanik ez bada dirurik ez dago eta ... Zer egin dezakezu gizarte diruzale batean ia bizitzeko arnasa ere dirua kostatzen bazaizu?

Beste leku askotan bezalatsu, Bortz-Herri eta Baztan bailaran nahiko langabe bagaude. Hori dela eta gure herritik aldegin beharrean aurkitzen gara lana aurkitu nahi badegu. Adierazgarri bezala hona hemen muestra batzu.

Duela urte pila, gure arbasoek eta gurasoek Ameriketara joan beharrean aurkitzen ziren. Nork ez du pariente bat edo osaba bat Ameriketan izana edo oraindik han dagoena? Egun, berriro ere gaztedia Ipar-Ameriketara joan beharrean aurkitzen da, eta zihur asko gehiago ere joango lirateke baimena balute, bainan dirudienez han ere jende gehiegi da eta lehen adina beharrik ez.

Negu garaian ere gero eta jende gehiago joaten da lan bila Formigal, Candanchu eta inguru horietara, oporrak pasatzen dauden jauntxoek ongi moldatuak izan daitezen, hango jatetxetan lan egitera. Sukaldari, serbitzari eta barman bezala lan egin beharrean aurkitzen dira eta zenbaitetan zerbait gehiago bezala ere bai.

Azken boladan Francia-ko ohianak ere pixko bat ahaztuak geneuzkan, baina berriro ohianako lan gogorra zer den ikasi beharrean suertatzen dira zenbaitsu. Eta beste multzo bat hori zer den ere jakiteko, aukera hori nahiz ez izan noski.

Beste batzu hemen, gure herrian lana aurkitzeko suertea izaten dugu. Bainan beti ere lau edo sei hilabeteko bakarrik. Eta denok badakigu honek zer suposatzen duen. Lan gehiago eta nagusiak nahi duena isil isilik egin behar. Etzen bestela izanen hiru hilabeteko kontrata betetzean zakutoa hartu eta etxera joan behar, berriro lana izateko itxaropenik gabe.

Emakumeentzat oraindik okerragoa dago egoera, zeren aukera jarriz gero lanpostu baterako mutila ala neskatxa, gehienetan gizonezkoantzako izaten da. Neskak lanpostua, serbitzari bezala bakarrik daukate. Hogei mila pezeta irabazteko etxekoandreari, umeei eta zerbait gehiagori ere jasan behar izaten diete eta hori seguru eta ezer gabe.

Lan ezak dakartzkigun arazoak sinistu ezinak dira. Hasteko gurasoekin bizi behar dugu hogei eta ez dakit zenbat urte arte. Etorkizunari ere ezin diogu patxadan eta itxaropenez begiratu. Eta baldin bikotean elkarrekin bizi nahi badegu, nola bizi gintezke, etxea ordaintzeko dirurik ez badugu?

Ez al du Espaniako konstituzio «ezinhobe» horrek esaten, denen eskubidea dela lana izatea? Eta guk ez al dugu eskubiderik lana izateko?

Dirudienen langabeziaren arazoak konponduko diren itxurik ez daukate. Madrilen hor dabiltza gora eta behera sindikatoek, administrazioa eta enpresarioek «pacto social» dela eta. Itxaropen gehiegirik ez

daukat gauzak konponduko dituztenik. Badirudi eskubide gehiago eman nahi dizkiotela nagusiei edo enpresariei, zeren hemedik aurrera ez omen dute gehiago langile fijorik hartuko baizik eta epe labur bateko bakarrik. Eta horrela noiz arte...? Agian beste gerla bat sortzen duten bitarte!

Eta zer egin genezake, guk, lanik gabe gaudenok? Gauza anitz egin genezake, sistima soziala aldatzetik hasiz gero, bainan ni ez naiz hain urrun joango, baizik askoz ere gauza sinpleagoak eta gure eskurago daudenak aipatuko ditut.

Azkeneko urte honetan Lesakako Laminazioetan jende franko sartzen ari da nahiz eta ebentual bezala izan, hau da sei hilabeteko bakarrik. Jakiteko aukera izan dudanez, iaz Lesakako lantegian 96.000 ordu «extra» sartu omen ziren. Zer esan nahi dut honekin?

Kontutan hartzen badugu Lesakan langile bakoitzak urtean zehar 1.806 ordu sartu behar dituela eta banatzen baditugu 96.000 : 1.806 = 53 lanpostu gehiago izango liratekela. Europan eta bereziki Alemanian greba gogorrak egiten ari dira lanako saioa txikiagotzeko, 35 ordutara jeisteko. Hemen aldiz ordu extrak sartzen! Gogora heldu zait erdarazko slogan ospetsu hura gai honi aukeraz datorkiona: «Trabajar menos para trabajar todos». Nik proposatuko nukeena litzateke gure herrietan ordu «extra» sartzen dituzten horien salhaketa egitea. Horretarako baditugu modu asko eta horietako bat litzateke pintadak egitea.

Gazteok, langabezian aurkitzen garenok ahaleginak egin behar ditugu gaurko egoera aldatzeko, zeren guk ez badugu deus egiten inork ez du guregatik egingo eta.

ASSURA

HARMA BAT HAR EZAZU, HORREK LAGUNDUKO ZAITU

Egun hauetan batzarreak eta enpresari bilerak nonnahi ospatzen ari dira, baita Elizak ere betetzen dira, beren inguruetan jendea bultzatzen delarik, gu egunero itotzen gaituzten arazoei irtenbide koherente bat emango balieken bezala

Non dago egunero mamutzen gaituen langabezia, gosea tortura, ezelkartasunari, kapa sozial hauek eman beharrezko irtenbidea?



Gure itxaropena klase sozial hauetan utzi behar ote dugu?

Obe erran dezagun, bere indar guztiekin estutu eta gure bizitzaren izerdiarekin jostatzen ari den jendea dela. Gizarte honen egiazko delinkuenteak hauexek dira. Guzti horiek gure aurka tiro egiteko zain daude, zeren eta gaur egun, gazteen edo langileen nahiak espetxearekin zigortuak daude.

Bizitzen ari garen denbor berri eta basati hauetan, denon iturburu dena, HERRIAREN alde borrokatzen dugulako, zainduak, ihauliak eta explotatuak gaude. Zer egin daiteke gizon polizi, lege zapalkor, rekonbertsioko ZEN plana, sasi hauetatik ateratzeko?

«Gizon politikoan» gure uste ona aspaldian hil zen. Jesukristo, Bakunin eta Herriaren beste borrokalariak bere ordua iritsi eta aspaldian joan ziren.

Orain bakarrik gaude, gu gara erneak eta tentelak, gu dena izaten ahal gera, horregatik denen alternatiba baten bila borrokan jarraitu behar dugu.

Bizitzaren komedian, historia berri bat egunero, eta gu geroa garelako bizi sozial desberdin bat bilatu behar dugu.

Ukigabeko paradisua, ez eta denontzat balio duen egia eztela badakigulako, nola egin behar dugun ez didazu galdetu. Gizarte madarikatu eta bidagabeko honek arrapaturik gaituela eta, eguneroko oihua izango da bidea, zapalketa iraunkorraren aurkako oihua.

Gurea den askatasunaren gatik maitatzen eta borrokatzen jarraitzeko, sakelean itxaropen ale bana eduki behar dugu. Gizakia usteltzen duen erakunde burgesa-kapitalista, Eliz Vatikanoa eta gainerako gurpil zoro guztietatik urrundu behar dugu. Zergatik iritsi horiek nahi duten lekura?

Gure kulturaren arriskua, gure pakto sozialа, OTANeko gure sarrera, gure izatearen iturria, hau da: gure Ekologia, eguzkiaren irteera bezain garai onezkoa iristen ahal delako, gu, Geu izatera ikasi behar dugu

BINTXU

«zer
bero
behar
du
zuen
odolak
irakiteko»

(Puerto de Santa Mariatik)

Euskal preso politikoak:

(1984ko Abenduan).

Herrerako kartzelan
Basauriko 3
Alkala Meko 160
Yeserias 21
Carabaranchel 4
Martutene 6
Soria 10
Nanclares 34

Hau ez da batuketa bat, hau izurraketa bat da.

419 pertsona...

Gure borrokaren zentzua
garena izatera iristea
garena izaten utz gaitzatela
euskaldunak eta libreak
ez da behar teori gehiago
baina ekin behar da zeren
hobe da burrukatu eta galtzea
galera aurrez onartzea baino

(Puerto de Santa Mariatik).

«EUROPAKO EKONOMI ELKARTEAREN HELBURUA: ESNEAREN PRODUKZIOAK JEITXI»

Lerro hauetan idazten dudanarekin, adierazi nahi nizueke, lehengoaldian aldizkari batzutan irakurri nuen zerbait, EEE-an esnea eta esnekiekin gertatzen dena.

Badakigun bezala «EEE»an, azken urte hauetan aztertzen dute zer behar izan dituzten eta bederatzi herrialde horien artean ezin dute gainditu hautatutako kantitatea. Adibidez 1.984-85 kanpainan, 99.235 Tonelada esne ziren partaide guztien artean ateri beharrak (Ikus koadroa).

HERRI - ALDE PRODUKZIOAK (84-85 Kanpainan)

BELGICA 3.138 Tonelada

DINAMARCA 4.932 Tonelada

ALEMANIA 23.481 Tonelada

FRANCIA 25.585 Tonelada

GRECIA 472 Tonelada

IRLANDA 5.525 Tonelada

ITALIA 8.323 Tonelada

LUXEMBURGO 293 Tonelada

PAISES BAJOS 12.O52 Tonelada

REINO UNIDO 15.763 Tonelada

TOTALA 99.57O Tonelada ---99.235 Tod.Reserba*

* Ajuste batzu egiteko erabiltzen den esnea.

Età koadroak dioenez, herrialde bakoitzak hor dauka gaindi-ezinezko Toneladak. Gero bakoitzak eben lekuetan beste banaketa batzu egiten dituzte eta abelzainari adierazten diote atera behar duen esnea. Baina kontuz, litroetan pasatu gabe! Pasatuz gero, litro bakoitza,abelzain bakarra izanez,ordu horretan dagoen prezioren 75 ordaindu behar diozu administrazioari, abelzain bakarra izanez, eta 1OO elkarte batetan izanik.

HERRIALDE BAKOITZAREN IRTEERAK

Adibidez Holandan, esnea biltzen duten zentralak, hamabosten behin adierazten dute nola doazen esnearen sarrerak, Alemanian berriz, produkzioa jeisteko atarramenduak asmatzen hasi dira eta laguntza ekonomiko batzuen banaketak egiten ..., e.a.

... ETA FRANZIAN?

Herrialde honetan gehixeago gelditu nahi nuke, EEE-ko esplotazio txiki gehien daukana delakoz.

Nolanahi ere abelzain batzu esnearen negozioa uztekotan omen dabiltza eta beste gehienak zer pasatuko ote den itxaroten, EEE-ko azken neurri honekin.

Esne zentraletan berriz, esne gutxiago datorrela sumatzean, eta eben rentabilitateak arriskuan ikusirik, langile asko langabezian uztekotan daude.

Administrazioak beste erabaki batzu hartu ditu:

1.- Kalitaterik ez duten esne guztiek prezioetan zigortzen ditu. (CEE-ko esnearenkalitatea 3,7 grasa eta 3,2 proteina, da).

2.- Joan den urtetik honara esplotazio bakotzari 2ra produkzioa jeitxierazi dio.

3.- 55 urte dituzten abelzainei eta 45.OOO litro urtean ateratzen dituztenei, O,61 frankoz litro bakoitza saritzen zaie, baina erretiroa kobratzen hasi bezain laster behiekin lan egiteari utzi behar diote.

4.- 65 urte dauzkatenek eta 3O.OOO litro/urtez ateratzen dituztenek, esne gehiago ez produzitzeagatik 18.3OO franko (336.OOO,- pzta.) eskeintzen diete.

5.- Esnea-behiekin lanean ariz 6O.OOO-9O.OOO litro/urtez ateratzen dituztenei O,3O5 franko/litro (914.OOO,-pzta.) Prima hau edozein abelzainei eskeintzen diete baina esne-behiekin gehiago ez jarraitzeagatik.

KONKLUSIOA

a) Esne gehiegi dago EEE-en (Gehigarri daudenak: 39.OOO bagoi, 569 kilometro, esne errautsaz beterik. Sobra dagoen

mantekilarekin zortzi hilabetez asetzen ahal lirateke EEE-ko biztanleak).

b) Kalitatea ona eskatzen dute (3,7 grasa, 3,2 proteina).

c) Herrialde bakoitza neurri latzak hartzen ari da esne eta esnekiei buruz.

d) Abelzain handiak eta rentableak nahi dituzte.

IRITZIA

Esaten duteza laister sartu behar omen dugu EEEan. Prest egoten ahal gara! Ikusi dugu Europan barrena esnea sobra dagoela eta inoiz sartzen bagara,ederrak ikustekotan dago hemengo baserritarra, lehen bere burua ezin badago, orduantxe poliki...! Erakundeak esaten ari dira aldaketak egin behar liratekela..., baina nola? noiz? ze aldetara jo? Bai, ikusi ditugu gure herrietan egin diren aldaketak, esnera dedikatzen diren baserri guztietan «Tanke» hoietako bat jarri erazi diote,

ah! eta subentzionatuak ...! Baina mesedez ikus dezagun, berriro engainatzen ari zaizkigula jendea ongi informatu eta egiazko aldakuntza bat egin beharrean, esnea frigorifikotan sartzea eskatzen dute, hori da lehenbiziko arazoa ... Beno ...! hori duk astakeri galanta! Hozgailuak erosterazi, lehen ez izaki gauza gehiago egin beharrik ...! Ez zaioe gaizki etorri aparailu saltzaile hoiei. Eta beti horrela! Aldakuntzak hemen beti burugabekerietan ixurita daude.

Baserria nahi badugu aurrea eraman, organizatzea besterik ez zaigu gelditzen, Erakundeek ez digute lagunduko, hoiek dirudienez beste mundu batetan bizi dira, bestenaz ixautuak gaude!.

ASPALDIKO

esnekiek - derivados de la leche

abelzain - ganadero

Europa Ekonomi Elkarte (EEE) - Mercado Comun

BASERRITARRA ETA BERE NAGUSIA

Txomin baserritarra soroa lantzen ari zen eta guttien uste zuenean, kalean bizi zen nagusia harrosko azaldu zitzaion.

Baserria ez zen Txominena; Txomin maizterra zen eta nagusiarekin erdira lan egiten zuen.

—Kaixo jauna, zu hemendik?- esan zion Txominek.

—Bai, erdira lan egiten duala badakik eta soro honetan ereindakoaren erdia neretzat izanen dela esatera hatorkit eta ez has niri baserritar azerikerietan, bestela...

—Tira jauna! ez dugu behar inorekin hasarrerik eta guttiago zurekin. Lur azpikoa zuri emango dizugu eta gainekoa guretzat izango da.

—Laster hasi haiz azerikerietan, ximista hori! Gainekoa niretzat eta sustraia hiretzat!.

Txominek patata erein zuen eta ateratzeko ordua heldu zenean, lasto iharra besterik ez zuen eraman ahal izan nagusia.

Ezer ez zuela irabazi ikustean, hurrengorako sustraiak nahi zituela adierazi zion nagusiak baserritarrari.

—Tira, ba, ba, nahi duzun bezala.

Eta Txominek artoa erein zuen.

Udazkenean han agertu zen nagusia iribarra gaiztoa ezpainetan, bere kamioi eta guzti. Baina ez zuen lan handirik izan uzta biltzen, arto sustraiak etxeratzea baino bertan uztea hobe zela pentsatu bait zuen.

Antoni Otxandorena

Mafaldatxu

Lagun maitagarria

1

2

3

4

5

6

LESAKAKO IKASTOLA... PAUSO BAT AINTZINERA
(Oraintxe, edo inoiz ez...)

Urte franko pasa da zu hasi zinenetik. Dozena erdi bat haur eta beren gurasoak, Marijoxe andereinoaren inguruan bilduak. Makina bat negar eta irri egin ditugu ezkeroztik.

Aurtengo udan zure magaletatik aterako dira «mundura» zure lehenengo haurrak... barkatu... neska-mutilak. Helburuak, garai hartako meta nagusiena bete da: demostrtu, frogatu duzu ikasketak (estudioak) euskaraz egiterik bazegola, inungo lotsarik gabe. Hori hortxe dago. Jo ziok kina!.

Orain begiratu diezaiogun geroari.

Nik ez dut uste eskean segitu behar duzunik. Zuk demostratu duzu Lesakan leku bat irabazi duzula; neska ponpoxa zara dagoeneko(«TANTIRUMAIRU» zure izen hori bezain ponpoxa, aunitzen zeloak ernarazle); herriko alaba, euskalduna





euskaldun izateko sortu zizutelako; herritarra, lesakarra, norbait baldin bada.

Eta gaur egun gure agintariek hitz ederrak dauzkate zuretzako. Zuk daramazun bidea eta egiten duzun lana ia ez omen da pekatu; euskaldunok bizitzerik ba omen daukagu; gure seme-alabek ikasketak euskaraz egitea legez babestua omen dago. Beno, hitzak izango dira (eta gizon horien hitzez ez naiz gehiegi fio), bainan har diezaiogun hitza.

Esijitu dezagun, behingoz, herriaren poltsatik ateritako diruz egindako eskola eder hartan tokatzen zaigun tokia. Bainan, erne!: ez goaz txoko baten eskean, ez goaz inoren morroi izatera, morrontzaren kateak haustera baizik. Gure eskubideak berriz eskuratzera (berreskuratzera).

«Goiko» eskola eta «beheko» eskola desagertu bitez. Eraiki dezagun herritar haur GUZTIENTZAT eskola BAKAR BAT, herri bakar bat geranez (eta ez bi). Eskola berri bakar bat, eta hor nahi dutenek euskaraz eta nahi dutenek erdaraz...

Eztabaidagarria, diskutigarria da. Eta, beti ere, ez da batere erraxa izango... giro euskaldun minimu bati eustea ere hor... Bainan, lanak beldurtzen al gaitu?. Zer tokatuko zaigu, orain arte adina gehienez ere?.

Edo ausardi, atrebentzi gehiegi izanen litzateke horrelako pauso bat herrian?. (Bainan, geroa atrebituentzat da; hasiera hartan atrebitu egin ginen, eta irabazi egin dugu.

Edo, hortik joatea, malda behetti amiltzea izanen litzateke, orain arte egin den lan guztiaren ondotik?.

Zer diozu zuk?.

ANTTON



DIOSTESALBEKO KOPLETATIK NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETARA

Diostesalbe entzule finak
aizue zer moduz zarete
Bertsolaritzaz mintzatu nahirik
papera nahi nuke bete
Urte berria hasia dugu
manera ezin hobean
Diostesalbeko kopla kantari
etxez etxe umorean.

Urte berriari begira gisa honetako animoarekin akabatu genuen zaharra. Bertsozalea animatzeko notizia. Kuadrilak ikusi nituen nik gure Berako herrian barna aski ederki betiko koplak ixurtzen eta baita baserrietaraino bisita egitera kopla berriak eta guzi. Gazteak euskararekin jostetan, errimaren graziaz gozatuz.

Aldi beretsuan biltzen ziren Nafarroako bertsolariak eta zenbait bertsozale. Mugaren bi aldeetako nafarrek probetxuzko bilera egiten zuten. Ez da bilera bakar horren emaitza baina erran beharra dago dagoeneko Nafarroako Bertsolarien Lagunak Elkartea osaturik dagoela. Lehendakari, Elizondoko Mariano Izeta dugu, eta Lesakan bizi den Dionisio Mujika juntakidea da. Zer suposatzen duen horrek? Ba, bertzeak bertze, azkeneko urte hauetan Nafarroan bertsolaritzaren txinparta biziagotu duen taldearen estrukturazioa. Horrek emanen dio, hala espero da behinipein, gorputza dagoen mugimenduari eta aseguratuko hemendik aintzinerako bidea. Ez da gutti halajainkoa!

Erabakita dago, baita, Nafarroako Bertsolarien aurtengo Txapelketa. Otsailaren azken aldera hasiko omen da Martxoan akabatzeko. Nafarroa Beherako Aiherra eta Arnegin lehendabiziko bi saioak. Beran eta Erratzun hurrengo biak, eta lau horietakoak aditu ondotik, epai-mahaiak hautaturiko zortzi hoberenak Leitzako finalera. Berriz ere txapela airean. Norbait bertsoetarako goseak baldin bazegoen, horratx hor asetzeko adinakoa, urte berriak negu gogor honeri adio erraten dion aldi berean Udaberriarekin etorriko zaiguna.

Euskararekin jostetan
Nafarroako partetan
hogeitalau bertsolari zintzo
ahaleginetan
txapela dantzan airetan
Otsaila honetan bertan
ikusi behar Nafarroako
Bertso Txapelketan

Nafarroan izanen da
alde batetik bertzera
Aiherran hasi Arnegin segi
Erratzu ta Bera
hogeitalauek aukera
ta nor txapeldun atera?
Leitza deitzen den herri politan
ikusiko gara!

Seina bertsolari saio bakoitxean, finaleko zortziak kenduta. Horrela nahi da, esperientzia berria aurtengoa, bertsolari guttiago izanik, entzuleentzako saio labur eta gozagarriagoak izatea, eta bertsolariei lan gehixeago eman, bakoitxaren gaitasuna hobeki neurtzeko. Sei bider lau berdin hogeitalau, edo horrelako zerbait eginen lukete gure herriko eskolan, hogeitalau bertsolari. Baina bildu daiteke Nafarroan honetarako dozena parea lagun?

Joan den urtean bai,... eta aurten ere hala nahi. Dena den ez da bertsolari berri aunitzen usairik sumatzen. Gauza normala bertzalde, egoera ez baita urte batetik bertzera arrontean aldatzen ahal. Eta aldatzen ari da? Baietz uste dut, baina mantso xamar akaso. Bistan da alde batetik joan den urteko Txapelketako saioetara jende aunitz bildu zela, eta hortaz bai idatzi bai solas egin zela. Bertze aldetik berriz, aipatu behar da ikastola eta eskoletan hagitz gutti aintzindu dela eta bertsolari eskolek ez dutela apenas bizi seinalerik ematen. Bertso saioak ere ez dira berexiki ugaritu.

Bertsolari berririk ez da sortuko horretarako afizio eta gogorik ez bada. Bi horietatik hornituak gaudela uste dut, hala ere ez da nahikoa. Ez naiz la, dako lanetan eskuak urratua, bain @ erranen nuke norbaitek zaitu beharko lukeela alorra. Errana dago lehenago, eta berriz errateak ez du kalterik eginen: Noiz animatuko gara, atrebituko, Bertsolari Eskolak sortzera. Zergatik ez dugu soziedadeetako afarietara bertsolari parea ekartzen eta haren arrimura saiatu dakiguna probatzen? Agortu ote dira betikotz Baztango harrobiak, Bidasoako iturriak, soildu Malda-Errekako oihanak?

Bertsotan lagunari
kristorenak esan
ez hadi aizak mutil
lotsatia izan
ari gaitezen biak
elkarren gerizan
has hadi beldur gabe
gaur bertsolaritzan

Baztan, Malda-Erreka
eta Bidasoa
urrunago ezin dut
motza dut besoa
har dezagun bertsotan
plazer ta gustoa
gazteak zuentzat da
hor desafioa!

Bertze Txapelketa bat antolatu digute Donostiako Euskadi Irratikoek. «Fernando Amezketarra Saria» deitzen diotena. Berexiak izanen omen dira saioak, eta bertan parte hartuko omen dute plazan gutti aritutako bertsolariek. Taldeka ari, ekipoka, eta taldekideek herri berekoak izan behar omen dute. Aditu dugu Aranztar eta Lesakarren artean ekipoa antolatu dutela. Herri horiek ditugu Bidasoa alde honetan bertsozaleenak seguraski, erne egon beharko dugu zer egiten duten jakiteko.

Eta lerro hauek eskribitzen ari naizen momentu berean, berri triste bat zabaldu dute irrati eta egunkariek gure Ilbeltz zuri honetan, elurrak argitutako paraje hauek ilundu dituena. Hainbertze txori hotzak hiltzen ari direlaril, bertze txori bertsolari nafar bat ixildu da betiko. Elizondon aspaldi bizi zen Gorritiko Klemente Ezkurdia eta euskaltzale maitatua minbiziak eraman du.

KAPI

EGUBERRITAN ERE GIZONA BETI BEZAIN BAKAR

Ez natorkizue deus berririk erratera. Eguberri egunak joanak direlata, txanpain kortxo soinuak ixildu, gogoeta eta erreflexio txiki txiki bat egiten ari naiz nere burutik.

Nik ez dakit zuek sumatu izanen duzuen nik sumatu dutena eguberri egun horitan. Behar bada adinaren kontua da. Biziak gauza aunitz erakusten dizkigu; eta bertzeak bertze, txikitan ilusio gogorrez hartzen genituen gauzak, orain haunditzean hotzago hartzen. Gauzak erlatibizatzea erakusten digu biziak; gauzak ez direla OSOAK, ERDIZKAK baizik. Gauzen, bizia beraren dimentsio erlatibo hortaz ohartzen hasten denean neska eta mutila, normalean krisis egoera pertsonal gogor batean sartzen omen da (hogei eta piku urtetan, gutti-goitti-behetti diotenez).

Krisi sakon hortatik ateratzerakoan, biziaren arlo aunitz bertze era batera ikusten hasten omen da.

Banago eguberri bestei buruz horixe bera ez ote zaidan gertatu. Urteetan sartzen ari naizen arabera, besta hauetaz ere ilusio puska bat galdu egin dutela.

Eta neri gertatu ote zait, edo zuri ere bai?.

Eguberritako bestak aldatu egin dira azken urte hauetan, ala gu gara adinarekin aldatzen goazenak?.

Nork dudan paratu eguberri bestak aldatu direla gure hiri eta herritan, haundientzat eta haurrentzat ere.

Bainan, eta zer?. Hori ona edo txarra da?. Badu horrek ajolik?. Denborak aldatzen dira eta gu denborarekin. Eta kitto.

Eta kitto?. Gezurra galanta. Eta erreflexio txiki bat merezi luke honek.

Gure bizitzeko era aldatzen doaie, bai. Baina gure onerako edo gure kalterako doan aldatzen, hori geure buruari galdetzea premiazkoa zaigu. Edo, zer koini gara, ez badakigu nora goazen?. Eta zin-zintan uste dut gaurko gure gizon honek (guk) ez duela astirik nora doaien galdetzeko, ikusteko, ohartzeko. Itsu-itsuan bizi gara, bertzeak eramaten gaituzten bidetik.

Progresoaren trenean omen gaude, bagoazi, eta nor kirstok daki nora goazin?.

Eguberri besta hauekin egin «digutena», testigu. Erabat aldatzen ari dira besta hauek ere. Zopa berotik txanpain hotzara pasa gera denak baina azaleko kanbio horietatik gain, bertze zerbait ere aldatu da: sentimenduen berotasunatik kontsumoaren kate hotzara pasa gara. Gaur eta hemen, eguberri egun hotan ere, gizonen arteko hitzak urte osoan bezain hutsak, gizona urte osoan bezain bakar. A, hori bai: atarian piñu bikaina, argiak ñir ñir eta girnalda koloreduna; azken markako turroi garestiena mahai gainean; sukaldeko su berria gizonen arteko erlazioak bezain artifiziala.

Progresoaren prezioa omen da. Baina, zer da progresoa?. Nora garamatza progresoak?. Eta progreso intxitxu horrek une, momentu eta ordu goxo eta epelak ere lapurtzen badizkigu, merezi ote du progresoak?. Zer gelditzen zaigu sentimenduak ere hustutzen badizkigute?

ANTTON

ADIOSA BORDATXORI

Banengoen lehen ere, ez dudik egin, TTipi TTapa leitzen ez zenutelakoan (irakurri gutxiago): Zuek, Bordatxokukkk! Bordatxoko Tratantiek! Horregatik ez nintzen azaldu berriro ireki zenutenean.

Ez zen, ez Blas hortik agertu! Bai, zera!... Puta ederrrra ni!... Nahiago izan nuen entzun, ikustea geroko utzita. Total, hurrengo egunerako banekizkin berri inportanteenak, garrantzitsuenak.

-Disjokey jauna usoetan ibili omen da! esan zidan batek goi hartan ikusiz. Neretzat, berriz -bigarren larunbaterako han nintzen-, hegaka ibili dela nunbaitetan. Nola esango nuke?...«Kontrolador aereo» edo horrelako zerbaiten antza harrapatu diot. Hori bai, garbi dago kursilora ez dela joan, ez eta joango ere. Lehen purrustada!

-Inguru guztian argi urdin ergel bat jarri dute, esan zidan beste batek, eta kezkatua geratu nintzen ikusi arte. Ikusiz harrituta... Egia izaki! Eta ez urdin hori bakarrik, dena zizarez betea. Sobera eta gehiegi, hi... UYUYUYUYAMA!, Nola pistutzen dira... bata... bestea ondotik... hirugarrena... Galaktiko titi!... Tentel xamarra neretzat, eta egia da orduko minduta nenbilela. Ongi egina dela ez didazu esango, LALECHE! Propaganda egiten diet, kontseiluak dohainen eman, y ni puto kaso. Okerrago? Basoerdi bat ere ez zidaten ondora atera eta iruditu zitzaidan, nahiz ziur ez egon prezioak edariak baino lehen ematen zidatela. Iruditu bakarrik?

Zaharrekin bat egina erantzun beharko diegu bigarren purrustadari: SUA! Nun geratu dira eskatutako simulakroak?... Hori bai, erretzeko ez dugu lan erreza izango. Nork lortzen du

baldosak kiskaltzea!... AH, DYAkoak eta Gurutz Gorrikoak kanpoan, eta enpermerak (erizainak?) barruan, a todo lujo, beharrezkoa ikusten dugu, hezur konponkentarako. Erraldoi mahaietan kirofanoa jarri dezakegu.

Enpin. Puskatzen dutela kronistan karneta eta, gaurtik aurrera Bordatxon ikusten banauze, «de incognito» eta mozkorra, ez bait daiteke bestela. Beratar batzuekin esan beharko herria han elkartzen dela... eta noizko BORDATXO HERRIARENTZAT?

Eta ez naiz nere burutaz penatzen, besteengandik baizik. Konputadora lanagatik berezi-ki. J.C. gixarajua R.M. gixaixua, eta beste hain beste,... KASO BLASEKIN! Ez zaituztet bakarrik utziko! Hara hemen proba.

Kontutan hartuta Bordatxo aldetik ez dezakegula ezer itxaron, eta konputadorana gutxiago, Prantzitik heldu zaigu beste propuesta. Esaten dutenez -mendian dabiltzatenak jakingo dute-, elektronikako prantsez enpresa batek dendetara atera omen ditu «flashing» izeneko tramunkulo batzu.«Ducados» tamainako ordenadoreak izan behar dute, amorantea harrapatzeko prestatuak.

Patrikan duzula zoaz Bordatxora. Ondotik asmo eta aparato berdinekin dabilen neska bat suertatu ezkero bip-bipika hasten omen da eta bidearen hiru laurdenak eginak dira. Ez duzu ez «estudias o trabajas» galdetu beharrik, ez dantza egin beharrik. Bakar bakarrik zera galdetu: nerekin nahi den-dek oheratu? Eta larru jotzera! Zer errezago? Hori bai, ez naiz profeta baina apostatuko nuke hogei mila duro, esate baterako, Bordatxoko gaua bip-bipez beteko zela. Begiratu, eta beti edo gehienetan morroskoren bat aurrian. Enpin, enpin, Amali. Hau urte hasiera. Ondo segi.

BLAS R.I.P.

ERASUNGO PREGON ZAHAR HAIEK

Gaur egun ere ezkondu aurretik pregona egiten da, hau da, elizean apezak aldaretik abisu gisa edo jakingarri bezala botatzen duena izaten da: «hango ez dakit zein hemengo ez dakit norekin esposatzen dela eta Jainkoak bedeinka ditzala» edo «halako hori, honako beste honekin matrimonio santua hartzera doala eta ...» Horrela!. Eliztar guztia jakinen gainean paratzen da. Eliztarren bandoa dela esan genezake, eta ez besterik.

Oraindik urte asko ez direla, pregona elizeko aldaretik bota beharrean pulpitotik botatzen zen eta horretaz aparte beste eginkizun batzuk ospatzen ziren. Herri batetik bestera desberdinak ziren, noski. Hala Erasunen esate baterako, egun hori besta egun alaia izan zitekeen, andregaiak eta senargaiak hala nahi izanez gero. Pregon eguna, igandean egiten zen eta handik hiru egunera hau da, asteazkenarekin ospatzen zen.

Igande horretan, herriko gazteak andregaiari eta senargaiari koplak kantatzeko baimena eskatzen zioten, horiek baietza emanez gero, iluntzean neskaren etxera joaten ziren, ordurako mutila ere han egoten zen eta etxe atarian jartzen ziren gazte hauek koplak botatzen. Lehendabizi mutilari eta gero neskari, batak koplak bota eta beste guztiak koroa egin, horrela errepertorioa bukatu arte. Zirenak eta ez zirenak bota eta ondoren irrintzi ederrak. Gero jendea zai gelditzen zen, etxe barnetik ze aterako ote zuten ba, gehienetan ardo tragorik ez zen faltatzen eta ezta mokadurik ere.

Kopla kontuak ari geranez gero hara hemen Erasungo koplaria den Matias Elizaldek abestutakoak. Berak azkeneko aldiz orain dela 10-12ren bat urte bota omen zituen, eta beti ere bota aurretik andregaiaren etxekoak arraultz parea eskeintzen omen zioten, horrela xurrut eginez hobeki abesten omen zuen eta. Buruz dazki denak eta bere aita zenari ikasi omen zizkion:

senargaiari

1.
Ihaute laugarrenetik
sartzen zaigu garaizuma
nobio jauna agur agur
abe maria purisima.
—Koroak:
Dios te salbe
ongi etorri
gabon Jainkoak digula
gabon Jainkoak degularekan
egun on bat degula.

2.
Alabatua izan dadila
aldareko sakramentu santua
bedeinkatua izan dedila
Jaunaren izen santua.
—Koroak.

3.
Piperrak eta espeziek
Barzelonan erosiek
nobio jauna ia badegu
koplatzeko lizentzie.
—Koroak.

4.
Ez badu eman nahi lizentzie
geurekin daukagu ausentzie
atzo goizean sei t'erdietan
kortetiken aterie.
—Koroak.

5.
Eleizen eder liburu
oro alkarren inguru
gaur koplatzen den nobio jaunak
paradisuan aingeru
—Koroak.

6.
Alorren eder goldian
haren gainean belea
gaur koplatzen den nobio jaunak
soinean kapa morea.
—Koroak

7.
Aldez aurretik hor dauka
horrek guretzat gordea
beran eskutik espero dugu
hamar peztako urrea.
—Koroak.

8.
Edozein etxetan ez da izaten
horrelako zilar sobrea
borondateaz hartuko degu
izanagatik kobrea.
—Koroak.

9.
Amerikara joan da
bere fortuna egin da
berrogei ta hamalau ontzi
itsaoetan baditu.
—Koroak.

10.
Hoiek guztiak bereak eta
bere kostura eginak ditu
Buenos Airesko ziudadean
gariez kargatu ditu.
—Koroak.

11.
Horietan gariez kargatu eta
Espaniera ez gero
Espani hontan garien truke
arto faltarik ez dago.
—Koroak.

12.
Hor goietan izarra
errekaldean lizarra
gaur koplatzen den nobio jaunak
urre gorrizko bizarra.
—Koroak.

13.
Urre gorrizko bizarra
diamantezko izarra
gaur koplatzen den nobio jaunek
elizaldera galtzada.
—Koroak.

14.
Hor goietan lotrian
erdi erditik kolpea
gaur koplatzen den nobio jaunak
kutxean daukan dotea.
—Koroak.

15.
Kutxian daukan dotea
orradu batez betea
orradu hori zertarako
elizan ofrendatzeko
nobio jaunak nobia andrea
ez daukiela saltzeko.
—Koroak.

16.
Ez dakit nongo semea ote zen
herri honetan barbero
borondaterik ez balu izan
mintzatuko zen gaur gero.
—Koroak.

17.
Nobio jaunak barkatu
ez dizut ongi koplatu
koplari onak badira baina
ez dira herrian gertatu.
—Koroak.

ANDREGAIARI:

1.
Nere lagunak aldamenetik
hasi dira kejatzen
oraintxe bada hastera noa
nobia andrea koplatzen.
—Koroak.

2.
Nobia andrea gurie
hortzen daukazu irrie
bentaja gehiago badituzu bainan
kolore zuri gorrie.
—Koroak.

3.
Nobia andrea zabala
ama onaren alaba
informaturik etorri gara
limosneroa zerala.
—Koroak.

4.
Hor goietan elorri
ondoan jo ta erori
etxe hontako nobia andreak
amabirgina dirudi.
—Koroak.

5.
Beltin ere ez dugu ikasi izandu
nobia andre horren berri
Zaragozako ama birgina
Pilareko dirudi.
—Koroak.

6.
Hor goietan deitzen diote
burruntziari errena
nere lagunak aski deguta
sartu gaitezen barrena.
—Koroak.

7.
Nobia andrea esan gabeak
asko gelditzen zaizkitzu
nola ez dedan eskolarikan
zerorrek ongi dakizu.
—Koroak.

8.
Baldin gaurkoan nere kantuak
kalterik egin badizu
ez jakinean huts egin badet
barkatu behar didazu.
—Koroak.

9.
Nobia andrea kopla kantari
oraintxe gera aspertu
boteila eta basoarekin
beharko dezute prestatu.
—Koroak.

10.
Begira daude leihoetatik
batetik eta bestetik
etxe hontako nobia andreak
urre galoiak lepotik.
—Koroak.

11.
Lekunberritik honuntzaxeago
herri txiki bat Huitzi
nere eztarria laztu zait eta
egin zazute irrintzi
—Koroak. IRRINTZI...

A.Z.

BORTZ HERRI EUSKALDUNAK ZIRELA ADITU NUENEAN...

Joan den Azaroan galdera bat burutu zitzaidan: Euskarari begira ezaguera eta erabileraren artean nolako erlazioa izanen da? Gure burua euskalduntzat jotzen dugunok 500.000 gutti gotti betti izanen gara, bainan zenbat gara Euskara ama hizkuntza dugunon artean elkarrekin Euskaraz egiten dugunok?

Rikardo Baroja Eskola Publikoan proba txiki bat egin dut. 8. mailako neska mutil guztiak hartu ditut. Haiek giza talde bat osatzen dute eta elkarrekin ordu pila pasatzen dute.

Taldea horrelakoa da (a.85-ko Hilbeltzean)

	Neskak		Mutilak	
	Euskaldunak	Erdaldunak	Euskaldunak	Erdaldunak
Beratarrak	-	1	5	13
Etxalartarrak	8	-	5	-
Aranztarrak	2	-	7	-
Igantziarrak	7	-	3	-
Guztira	17	1	20	13
	18		33	
	51			

Euskaldunak: 37

Erdaldunak: 14

EZAGUERA

Portzentaiak

	Neskak		Mutilak		Neska mutilak	
	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.	Eusk.	Erd.
Beratarrak	00,00	05,50	15,15	39,39	09,80	27,45
Etxalartarrak	44,40	00,00	15,15	00,00	25,49	00,00
Aranztarrak	11,10	00,00	21,21	00,00	17,64	00,00
Igantziarrak	38,80	00,00	09,09	00,00	19,60	00,00
Guztira	% 94,40	% 05,55	% 60,60	% 39,39	% 72,55	% 27,45

1.275 bikote desberdinak ateratzen dira.

Berako bikoteak

Neskak	0	Guztira: 171	% 13,41
Mutilak	153		
Neska eta mutila	18		

Etxalarko bikoteak

Biek neskak	28	Guztira : 78	% 6,11
Biek mutilak	10		
Neska eta mutila	40		

Arantzako bikoteak

Biek neskak	1	Guztira: 36	% 2,82
Biek mutilak	21		
Neska eta mutila	14		

Igantziko bikoteak

Biek neskak	24	Guztira: 45	% 3,53
Biek mutilak	3		
Neska eta mutila	21		

Nahasitako bikoteak

Beratarra eta Etxalartarra	247 bikote.	% 19,37
Beratarra eta Aranztarra	171 bikote.	% 13,41
Beratarra eta Igantziarra	190 bikote.	% 14,90
Etxalartarra eta Aranztarra	117 bikote.	% 09,17
Etxalartarra eta Igantziarra	130 bikote.	% 10,19
Aranztarra eta Igantziarra	90 bikote.	% 07,05

Neska-mutilen bikoteak	594	% 46,58
Nesken bikoteak	153	% 12,00
Mutilen bikoteak	528	% 41,41

Erdal-euskaldunen bikoteak	518	% 40,62
Erdaldunen bikoteak	91	% 7,13
Euskaldunen bikoteak	666	% 52,23

ERABILPENA

Erabilpena ezagutzeko auxe egiten nuen:

Haurrak banaka hartuaz, ea bere eskolako lagun guztiekin zein izkuntzez egiten zuen galdetzen nien. 8. mailako haur guztien izenak ematen nizkien eta heurek zein izkuntzez egiten zuten erraten zidaten.

Kezka sortzen zenean (6 bikotetan) elkarrekin zerbait egitera bidaltzen nituen eta horrela nik ikusten nuen zein hizkuntzez hitz egiten zuten. Seirek erderaz egin zuten.

Hauek dira emaitzak:

	Erderaz	Euskeraz
Berako bikoteak	% 100,00	% 00,00
Etxalarko bikoteak	% 98,71	% 01,28
Arantzako bikoteak	% 00.00	% 100,00
Igantziko bikoteak	% 100,00	% 00,00
Bera eta Etxalarko bikoteak	% 100,00	% 00,00
Bera eta Arantzako bikoteak	% 100,00	% 00,00
Bera eta Igantziko bikoteak	% 100,00	% 00,00
Etxalar eta Arantzako bikoteak	% 82,90	% 17,10
Etxalar eta Igantziko bikoteak	% 100,00	% 00,00
Arantza eta Igantziko bikoteak	% 84,40	% 15,50
Neska eta mutilen bikoteak	% 96,30	% 03,70
Nesken bikoteak	% 99,34	% 00,65
Mutilen bikoteak	% 91,09	% 08,90
Erdal eta euskaldunen bikoteak	% 100,00	% 00,00
Erdaldunen bikoteak	% 100,00	% 00,00
Euskaldunen bikoteak	% 89,48	% 10,51

1.275 bikote dira: % 100

1.205 Erderaz egiten dute:% 94.51

70 Euskeraz egiten dute: % 5,49. Nahi balute % 52,23 ak Euskaraz eginen lukete.

ONDORIO BATZU

Berako haurrek, Euskaldunak bai Erdaldunak, beti erderaz egiten dute, haien artean edo bertze herriko lagunekin.

Etxalartarrek elkarrekin beti Erderaz egiten dute. Euskaraz egiten duen bikote bakarra senidez osatua dago.

Igantziarrek beti Erderaz.

Aranztarrek elkarrekin beti Euskeraz egiten dute bainan bertze herrietako lagunekin elkartzen direnean -nahiz eta laguna euskalduna dela jakin- normalki Erderaz egiten dute (91,26).

Ondorio gehiago atera nezakeen bainan gehiegi luzatuko nintzatekela uste dut, hemen bukatzen dut lantxo hau.

Patxi Sanjuan.

D Y A G U R E

I N G U R U E T A N

Orain dela urte bat gutti gora behera, Lesaka eta Berako pertsona talde batek, eskualde hau sanitari larrialdi zerbitzurik gabe aurkitzen zela ikusirik, DYA Bide Laguntza elkartearen Ordezkaritza bat ezartzea pentsatu zuten, Baztan-Bidasoako beharrak betetzeko asmoan.

Martxoko ilabetean, DYAren laguntzarekin, sokorrismo ikastaro bat antolatu zen Lesakan, sanitari ezagupena eta praktika izatea lan hori egiteko. Bukaeran, beharrezko probak gaineratu zituzten partaideek sokorrista tituloa ukan zuten eta hoietatik talde bat DYA Bide Laguntza Elkarteko bazkide langile edo aktibo egin ziren. Lesakako Herrikoeteak utzitako gela batean, maiatzaren 13an hasi zen lanean Baztan-Bidasoako Ordezkaritza. Nahiz administratiboki Nafarroako Bide Laguntza Elkartearen barne den, urbiltasun eta komunikabide hobeagokoak direla ta, Gipuzkoako DYA Zentralarekin lan egiten du.

Ilabete hauetan anitz dira DYAk egin dituen lanak: ezin diteke lan horren zerrenda bat egin baino errepide eta etxeko istripu edo akzidente bat gertatzen denean, herrietako bestetan egiten diren ikuskizunetan, sua itzaltzen, gaitzezko larrialdi edo urgentzietan, kirol txapelketak etab. han dago DYA edozeineri laguntzeko. Momentu honetan 24 baskide aktibo edo lagile egiten dute desinteresatuki lan meritugarri hori. Hauetan badire Lesakarrak, Beratarrak, Arantzakoak eta Baztandarrak.

Bestalde, hor dire 60 bazkide laguntzaite hoiek, naiz ez duten zerbitzurik egiten urtero ordaintzen dute diru laguntza DYAren alde eskeintzen dute. DYAk ez du ezer kentzen (edo kobratzen) zerbitzu egin alde eta dituen gastu guztiak ordaintzen ditu jendearen emaitzekin. Naiz orain anbulantzi bat bakarra dagoen zerbitzuan, laister beste bat izateko itxaropena bada eta orduan laguntzak maizago egiten ahalko diren baztanaldean

Lan hauetatik kanpo, Baztan-Bidasoako DYAren asmoa da noiz behinka mintzaldi batzuk eskeintzea herrietan osasunari buruzko gaiekin.

Momentu hontan DYA Baztan-Biodasoak duen beharrik handiena zerbitzuak egiteko jendea eta nahi duenak lan horretan sartu eskaera egiten ahal du Lesakako Ordezkaritzan.

Eta behar ordu batean ahantzi edo oroitu DYAren larrialdi telefonoaren zenbakia (943)46 46 22.

DYA.



HAURREN TOXIKAZIOAK

Haurrak produkto toxikoak (esatebaterako lixiba, abarras, medikamenduak eta abar.) irentsiz gero, bere bizia egoera larri bezain arriskugarrian jarri dezakeela jakin behar da.

Egunetik egunera toxikazio gehiago gertatzen da eta bereziki urtetik lau urte bitarteko haurretan. Kasu gehienak etxebizitzetan gertatzen dira eta arrisku handiena sukaldeetan izaten da.

Maizena irensten diren toxikoak medikamenduak eta garbitasuneko produktoak izaten dira.

Gizarte honetan progresoa dela eta egunetik egunera sustantzi kimiko berriak agertzen doaz eta gure inguru giroan sartzen. Etxe bizitza guztietan sustantzi toxiko aunitz daude hala: medikamentuak, garbitasuneko produktoak, insektizidak, pozoiak, kosmetikoak... Den denak potentzialki toxikoak dira.

Edozein sustantzi behin gorputzean sartuz gero zauria edo min egiten duena edo eta heriotza sorterazten duena toxiko dela esaten da.

Baina, nola edo zergatik gertatzen dira toxikazio hauek?

1.- Ingurugiroari dagokionez, bada:

-Haurrak hurbilean pertsona heldu baten falta duelako.

-Haurrak jostatzeko lekua behar du eta leku egoki eta aproposa falta duelako.

-Famili barneko aldaketak direla medio.

2.-Haurrei dagokionez, bada:

-Bitxikeri handia izaten dutelako.

-Dena ukitzeko prest daudelako.

-Oso aktiboak direlako.

-Ikusten duena imitatzen dutelako.

-Arriskurik ikusten ez dutelako.

3.-Toxikoei dagokionez, bada:

-Ongi eta leku seguruan ez delako gordetzen.

-Ezaugarri atseginak dituelako (kolorean, usaiean...).

Haurtzaroan horrelako toxikazioak maiz gertatzen dira. Behin toxikazioa gertatuz gero, zein toxiko eta zenbat hartu denaren araberan izanen da larritasunaren gradua, horretaz aparte haurreren ezaugarriak (adina, pisua, osasuna...) badute ikustekorik.

Haurrez neurriak hartuz gero, honelako istripu aunitz ekidin daiteke. Neurri horietako batzuk hauek dira:

1.-Sustantzi toxiko guztiak gordeak egon behar dute eta ez haurren esku(esate baterako garbitasuneko produktoak armario eskuraezinetan eta medikamenduak berriz leku giltzatuetan).

2.-Medikamenduak eta etxeetako produkto kimikoak edo pozoiak bere jatorrizko ontzietan eduki, etiketa eta guzti. Sustantzi horiek ez dire inoiz ere, jaten edo edaten ibiltzen diren ontzietan gorde behar. Haurrak uste gabean irents dezakeelako.

3.-Erabili gabeko janarietaz eta usteltzen hasi direnetaz lehen bait lehen libratu.

4.-Haurrei ez erakutsi botil muturretik edaten ezta karameloak hartzen, ba horrelako ohiturak jarabeak edo pilulak hartzera bultzatzen bait dituzte.

5.-Haur ttikiak zaindu, ez utzi bakarrik denbora luzeetan.

6.-Edozein medikamendu edo produkto kimiko (kalterik egingo ez duela iruditu arren), haurrak irentsi edo eta irentsi duen susmoa baldin bada sanitariarengana joan behar da lehen bait lehen. Inoiz ez dira etxeko neurriak hartuko (hala goitika egin eraziz edo) zeren eta egoera oraindik gehiago oker bait dezake.

Kasu gehienetan toxikazioak, larrialdizko tratamendua behar izaten du beraz denborik alperri galdu gabe, zeren eta haur horren bizia arriskuan egon daiteke eta.

A.Z.



Lixiba – lejia
Abarras - aguarras
Bitxikeri - curiosidad
Larritasun - gravedad
Ekidin - evitar
Pilula - comprimido
Toxikazioa - intoxicacion

BERAKO MENDIETAKO ZUHAITZAK

Bai badakigu egurra sukalderako beharrezkoa dela, bai Beran, beste herrietan ere. Beharrezkoa da gauza askotarako, janaria egiteko, etxea berotzeko, eta abar, batez ere Iberdueroren tarifak eta butano ontziaren prezioak nora doazen kontutan harturik.

Ikatza gutti eta garesti dago.

Gauza hauek denak kontutan eduki eta, Berako bost langileok lantxo bat egin dugu:

Guk duela bost urte, ez genekien Berako mendietan zenbat egur zegoen, baina egurra asko gastatzen ari zela jakin genuen eta zera gogoratu zitzaigun, Berako zuhaitz haritza zahar guztiak kontatu behar genituela.

Hasi ginen mendiz mendi haritz arbolak kontatzen eta orain badakigu zenbat zuhaitz haritza dauzkagun egurretarako trasmotxatuak.

Egurretarako bakarrik balio duten haritz trasmotxatuak denetara zortzi mila eta berrehun eta hamar (8.210) dauzkagu. Hauetatik bost mila zortzirehun eta berrogei eta hamar (5.850) gutti gora behera, toki txarretan daude eta beste bi mila hirurehun eta hirurogei (2.360) toki onean.

Egurra orain bezala gastatzen eta aprobetxatzen segitzen badugu, zuhaitz guztiak ongi aprobetxatuz, hogei urteko egurra bakarrik izango dugu, buruan harturik egur asko toki txarrean dagoela.

Kontutan eduki behar da orain jende askok zuhaitza bota eta ia erdia bere hartan uzten duela eta uste dugu hobeki aprobetxatu beharko litzatekeela.

UDALETXEAREN ERABAKIA

Udaletxeak datorren urtean egur loterik ez ematea erabaki du. Gu ez gaude ados erabaki honekin, zeren ikusten bait dugu, lehen esan dugun bezela, jende asko beharrean dagola nahiz eta bete batzuk behar hau ez eduki.

Alde batetik herriko jendeari egurrik ez eman eta besterik zuhaitzak kanpora saldu,(zenbat pinu, haritz amerikano, akazia, bertako haritz, ez da saldu azken urte hauetan) eta, etxean zer? gabe?

Zer da Udaletxea, jende eta gauza guztien nagusi?

Herriaren erabakiak aurrera eramateko toki bat beharko luke, zuzenbidez, guk ez dugu beste biderik ikusten eta ez badaude horrela, ideia aldatzeko ordua dugu.

Guk badakigu egur loteak ematen segitu behar dela, egurra baden bitartean, guk ez dugu esanen zenbat edo zer egur eman behar den, baina eman behar dela bai.

Gainera pentsatzen dugu beharrezkoa dela estudio bat egitea daukagun egurrari buruz, zein zuhaitz bota, zenbat eman lote bakoitzari, zein zuhaitz saldu eta abar.

Gainera 8.210 haritz hauetatik aparte, egurretarako bada beste zuhaitz asko, badaude pinuak, pagoak, akaziak eta erreka bazterretan altzak, gaztainak, ametzak, platanoak, lurritzak, xarikak eta abar.

Berak Berako Udaletxeari herriaren beharrari begiratzeko eskatzen diogu eta herriko aberastasun guztiak berenak direnik ez pentsatzeko.

UDALETXEAK HERRIAREN BEHARRAK ETA HERRIAREN ERABAKIAK AURRERA ERAMAN BEHAR DITU, EDO ERAMAN BEHARKO LITUZKE.

S.O.S. NATURA HILTZERA DOA!!!

Negua gogor ari zaigu, elurraz bazter guztiak bete dira eta gizonaren bizia pixka bat moztu da.

Bainan nere lan hau ez dago negua analizatzeko puntu bat ikustekobaizik: «gizonen gaitasuna»

Urriroa joan zitzaigun eta ehiztarien hilabetea berarekin. Hau erraten zutenean, ni harrituta gelditzen nintzen: «bai uso urte txarra», eta nere baitan esaten nuen: «nola nahi duk urte ona izatea, heldu diren uso pixarrak hiltzen badituzue?. Noiz beren arazoari irtera bidea eman behar diote, hurrengo egunean morralia munizioz betea joango badira, usoak txikitzera gerrarra joaten balira bezala?»

Hori ehizturiak, baina eskopeteroak?

Norbaitek lan hau irakurtzen baldin badu uste izanen du eskopeteroak eta ehizturiak gauza bera direla. Ba ez, adibidez: ehizturia usotara ateratzen bada, usotan ariko da; gainera hauek zer animale galtze arriskoan dauden badakite eta natura errespetatzen dute. Hauetatik gutti dira!!. Eskopeteroak, edo ni deitzen dieten bezala «arrano haratustelzaleak», arrapatzen duten bizidun guztia hiltzen dutenak dira. Txoriak, arranoak, zuhaitz gazteak, itsas txoriak eta abar, denak garbitzen dituzte. Hauek dira gure mendian, animale, landare eta gaineko gauzak izorratzeko lana gehiena egiten dutenak.

Eskopeteroak burutan daukatena zera da, beti asmo finko bat: HIL,HIL,HIL

Nik ehizturiei edo eskopeteroei galde modu bat egiten diet, hauxe da: Zer mesede egiten diozue zuek mendiari? Hor duzue galdera, hurrengo TTipi TTapa ateri arte uzten dizuet asmatzeko denbora. Nere partez, nere begiekin ikusi dudana errango dizuet: neretzako ez duzue inolako mesederik egiten, kalte pila bat ez bertzerik eta hau da nere arrenkura:

Mendiak zikinak daude, plastikozko kartutxoak, latak, botilak, sintetiko gauzak edozein eskinetan botatzen dituzue. Gero horrela dago mendia tipo batzuk joaten zarete ehizira eta gaineko herritarrak mendira joan eta ara zer harrapatzen dugun: besteen gatik zikinkeria eta basura edozein aldetik.

Kultura pixka bat duenak badaki ingurua zikintzea, mendia hiltzea dela. Argazki ateratzera joan eta basura pila bat ateratzen da.

Ez uste izan gure mendia bakarrik baizik eta herriak eta gainerako gauz guztiak baita, guk hartzen dugun arnasa ere. Benetan, garbi dezagun gure herri eta oihaneztapen gehiago egin dezagun. Eta beste idea bat:

Neretzako eskola eta ikastolako irakasleak haurrak kontzientzia hartzeko klase bat eman behar luteke: herri garbi batek zer bentajak dauzkan ehizturia izatea baino. Gaur egun egiten diren ergelkeri mendeku eta gainerako zikinkeri guztiak atmosferaren alteraketara eramaten gaituzte, eta zergatik?: Naturari buruz, jendeari inork heziketa bat eman ez diolako.

Eta nere azken hitza hau da: Zuek eta nik ez daukagu ikuspen berdinak bainan denok naturaren alde lana egiten ahal dugu. Baina nola? Ba oihaneztapenean, berreiraketan gure oihan eta mendi zaitzen eta hori bai errespetatzen.

Azken hitza zuek daukazue. Agur.

BORDAZAR MATTIN

NESKATXA MAITE

Neska mutur beltz bateri
maite diot, dana.
Aguro hilko naiz ez bada
etortzen neregana.

Nahiko polita da ta
abertzale gaina.
Nik maitatuko baidet
bizi naizen aina.

Nafarroan jaio zan
neska mutur beltza.
Maite nauela esan du
hau da nere poza.

Bakar bakarrik nahi det
bete zure bihotza.
Hala ez balitz gertatzen
hobe, heriotza.

Begiak malkoz bete
ibili baizera.
Maitasunak, beti,
dio gera behera.

Nola leike bizi
zu gabe maitea.
Zure zai nago beltza,
zatoz nere besoetara.

LOTSATI.

Gaur euria egiten du. Beno, ez diot Izaskuni deituko buelta bat ematera joateko.

Niri, euria egitean ez zait gustatzen kanpora ateratzea. Nik uste dut egun euritsuak musika aditzen, estudiatzen, debereak egiten era irakurtzen etxean egoteko direla. Hobeki errana, nik horrelako egunetan tristura handia sentitzen dut, etxean gelditzen naiz, leihotik begira euri ttanttak nola erortzen diren, eta pentsatzen dut niri momentu horretan ateratzen zaizkidan malkoak bezalakoak direla, eta ohartzen naiz euri ttanttak lurra ukitzean nola gelditzen diren, nire malkoak aurpegira ailetzen bezala. Gero pentsatzen dut dena ura dela, euria eta malkoak, gauza beratik edo sentimentu berarengandik ateratzen direla eta azkenean dena bustia gelditzen da.

Euria egiten gelditu da eta nik nire malkoak eskuaz idortzen ditut. Tristura, nik ikusten dudan bezala kristal bustian hasten naiz marrazten.

MAITE

OTSOAK AILEGATU DIRA



Herrian sartu ziren mila otso. Hasieran artalde bat bezala zebiltzan eta ni artzaia bainaiz, atzean makila eta guzti. Piska bat kezkaturik, bilatzen ari nintzen nire zakurra, baina alferrik. Ez zegoen inondik. Otsoak zebiltzan karriketan, «kamera geldian», abere pelikuletan agertzen den bezala.

Herri haundi bat zen hura. Kotxeak, autobusak baziren anitz. Eta jendea paseiatzen karrikan, dendetara sartzen erosteko, han etxe berri bat egiten, hor udal obretan: beti dago udaletxea zerbait konpontzen, erretenak beti erretenak. Bapatean andre batek ohiu egin zuen: « Aizue, otsoak, otsoak¡ ». Eta berak korrika egin zuen atari batean sartzeko. Baina inor gehiago ez zen mugitzen izuturik.

Hiriak jarraitzen zuen hain normala eta otsoak zabaltzen ari ziren leku guztietatik, milaka, itzal ilun bat bezala. Eta ni artzaina, noski. Beno, otsozaina. Hiriko zakurrak bildu ziren nire inguruan, artzain zakurrak batez ere. Hogeiren bat nuen eta otsoekin batera zebiltzan. Otso grisak, goapoak. Begirada maltzur batez baina baretsuak. Behatzen zioten guztiri kuriositatez, japoniar turistak bezala. Otso talde handi bat gelditu zen janari denda baten aurrean eta itxaroten zuen nire baimena sartzeko. gozoki denda zen hain zuzen. Neuk banatu nituen gozoki erosiak eta handi joan ginen besteen bila.

Gozoki dendaren nagusia nuen ezaguna eta agur egin zigun oso kontent. Erran nion hurengo igandean goxokiak pagatzeko, Bitartean zakurrak geratu ziren kanpoan ikusi zutelako dendan sartzea zakurrentzat debekatua zela. Horrela margotua zuten kartel batean eta. Horregatik eraman nituen goxokiak zakurren artean banatzeko. Aurkitu nituen triste samarrak eskin batean.

Nire sorpresa hasi zen otsoak autobusetan ikustean, jarriak eta erretzen; batzuk eramaten zituen gizajantziak. Ikusten ziren bederen txaketak, atorrak eta betaurrekoak. Otso batek betaurrekoekin badakizue zer ematen dun? Liburu hartan agertzen den sagu emetxoa ... Zintzoak, jakintsuak dirudite. Beno, han ziren sartuak otsoak, autobusetan, kotxetan, kamioak gidatzen eta gainera txokatu gabe.

Jendea lasai sartzen zen etxeetara ikuskizuna aditzeko. Balkoietan, lehioetan paratzen zen pipak jaten eta, zikinak, azalak karrikara botatzen. Enparantza nagusiara ailegatu ginen zakurrak eta ni. Han ziren otsoak milaka. Ikusi nuen nola hasiak ziren zutik ezartzen bi hanken gainean. Hasieran piska bat duda mudatan, dardarka saiatzekotan, zirko batean ahuntz bati ikusi nion bezala. Baina gero eta tinkoago zebiltzan bi hanken gainean gizakien antzera.

Eguzkiak argitzen zituen gonak, galtzak, eta hain kolore bizizko atorrak. Halako batean otseme bat igo zen kioskora eta egin zuen mintzaldi bat, ulertezina niretzat, baina otsoek egiten zituzten txaloak eta gorak soinu haiek aditzerakoan.

—Momentu horrexetan esnatu nintzen amaren kulpagatik- erran zuen Iratxek. katarrua zuen amak eta eztulka ari zen, hainbeste erretzen du eta! Eztulka eta eztulka eta eztulka ezin nuela lo egin ordu erdi bat beranduago arte. Pena haundi bat eman zidan hain amets bitxia uzteak.

(Iratxe hamar urteko neskatxa bat da eta bere neska lagunekin dago Iruneren etxean. Arratsa. Urriaren bukaera da eta oso goiz ailegatzen da gaua egun hauetan. Hobe, gaua da egokiagoa ametsak kontatzeko eta egiteko, noski. Lau neska lagun daude jarriak edo etzanda alfonbra gainean. Uda honetan hasi dira jolas hau: bildu ohi dira noizean behin istorioak, ametsak, ipuin irakurriak kontatzeko. Beste biak Miren eta Hodei dira. Ikaskideak.)

—Ezin dugu utzi horrelaxe istorio hori - erran zuen Hodeiek.

—Bai, hori da penagarria ! Beste tenoretan bezala pentsa dezakegu bost minutu, tartean begi itxiak, nola jarrai dezake otsoen istorioa, ezta?.-Irunek ihardetsi zuen.

-Nik ez dut gogorik-, Mirenek. -Eta gainera joan behar dut agudo etxera, amak erran dit eta. Gau honetan amets eginen dut horrekin, konforme? Agur, bihar arte.

(Beste hiruok atearen hotsa aditu ondoren etzanda jarri ziren lurraren gainean eta erabat isilik. Minutu bat ez zen pasatua eta Hodeiek jarraitu nahi zuen ametsa jadanik, asmatu bait zituen jarraipena eta amai bat.)

—Ez, ez, espabilatua, horrek ez du balio, itxoin behar dugu bost minutu kontatzeko. Jolasa da jolasa eta hori zen akordioa kasu hauetan.

(Ilunabarrean isiltasuna sartu zen gela barruan lau minutu tartekoan eta Iratxeren otsoek bizia hartu zuten berriz Hodeiren ahotsaren bidez:

Zenbat eta denbora gehiago igaro zuen otsoak gero eta gehiago gizakien antza hartzen zuten. Apatxak ikusten ziren oraindik eta otso ileak nabaritzen baina pixkanaka desagertzen ari ziren. Otsemearen mintzaldia ulergarria zen orain guretzat.

—Orduan zenbat zeundeten enparantza nagusian ? Nire ametsan neu bakarrik nengoen- azaldu zuen Iratxek. —Beno, ba, zu, Irune eta hirurok ginen. Bazkaltzeko ordua eta otsoak jarri ziren zoluan. Hona henen agertu zen ogitarteko pila bat. Ez dakit nondik atera zituzten ogitarteko haiek hain gozoak eta hain desberdinak izateko: ogia mila kolorezkoa zen eta barruan zegoena denetarikoa, tipula tortila, txistorra tortila, gazta tortila, patata tortila, etab. Guk ez geneuen goserik eta joan ginen buelta bat ematera. Ikusi genuen nola otsoek karrikaren jabeak izanten jarraitzen zuten eta guztiok kale gorrian bazkaltzen ari ziren hain lasai etxerik ez bait zuten.

Halako batean eskolako mutiko batzuk agertu ziren, betikoak, bihurri eta lotsa gabekoak eta zirikatzen hasi ziren. Lehenbiziko usaitzen zituzten isekaz otsoen ogitartekoak hain pitxiak ematen zuten eta. Otsoek ez zuten kasorik egiten eta jarraitzen zuten jaten pertsonak bezala.

Hainbeste pazientzia ikustean mutikoek handik ihes egin zuten amorruz. Gu joan ginen beraien atzetik baina zenbait distantziaz. Geroago ikusi genuen nola hurbildu zitzaizkion bizikletaz zebilen otsakume bati eta txantxetan segitzen zuten jarlekuari atxiki eginez. Baina gero eta gehiago ekin zioten burlari oihukatuz eta irainduz. Zer irain? Saguren pazientzia akitu zen eta eman zion zaplasketa eder bat Josebari. Han hasi zen pelea! Mutikoak otsakumeen aurka: ukabilkadak, ostikoak, lurrean jotzeak.

Erran behar da, borroka mutikoen artekoaren antzera zela, ez gehiago. Nabaritzen zen otsoak gainditzeko zorian zeudela bere indarragatik. Ez pentsa hozka egiten zutenik, ez. Baina halako batean Josebaren sudurretan agertu zen odola. Anitz zeriola, eta bere ama balkotik ohiuka hasi zen. Hura zen iskanbila! Balkoietan eta leihoetan zagoen jendetza garrasika eta irainka otsakumeei. Otso guztiak prestatzen ari omen ziren hiritik alde egiteko, umilak eta damutuak, barkamena eskatzen bezala. Hori umeen gauza soilik zela eta.

Halako batean tiroak aditu ziren. Eskupetako tiroak. Zenbat eta nondik ateriak? Inor ez zen konturatu baina hiru otsakume hilak geratu ziren lurrean. Josebaren odolarekin nahastu zen otsakumeena eta mementu hartan gizakiekin otsoen antza desagertzen hasi zela ikusi genuen. Lau hanken gainean jarri ziren piskanaka piztien itxura hartuz. Otsoak milaka berriz bildu ziren eta galdu zuten beren baretasuna. Bitartean jendetza etxeetatik atera zen hilak ikusteko, otsoekin nahastuz. Segundu batzutan egin zen isiltasun itzal bat.

Mementu horretarako gu joan ginen handik korrika eta presaka zer pasatuko zen antzematen genuelako. Horrela izan zen. Otso ulu ikaragarri batek zeharkatu zuen airea eta gerra agindu baten antzera otso guztiek batera eraso zuten jendetza. Hura izan zen sarraskia!

—Zer beldurgarria den hori!-, erran zuen Irurak. Egia izanen balitz, eh?

—Hau amets huts baten jarraipena da bakarrik-, Hodeiek. Ez diogu erran behar Mireni asmatu dudana, ea beste moduz ipuinaren jarraipena egiten duen. Zoriontsuagoa bederen.

J. B. TIRAPU

PRINZIPEA ETA ANDREA

Aspaldi hiri haundi batean prinzipe bat bizi zen.
Honek munduko andre politenakin ezkondu nahi zuen, aste batzuetan batzarre bat egin zuen eta andre guztiak etorri ziran.



Banaka, banaka ia zein zen politena bilatzen hasi zen, eta eder bat ikusi eta hura aukeratu zuen.
Bi aste pasatuta, zarzietan prinzipe hazen palaziaan baile bat bazen.
Baina andre batek arrapik hartzeko ez zuen eta erreka ondora gan ze

Nigarrez hasi zen eta arduan andere zahar bat agertu eta arropa berri bat eman zion, eta arduan andre ak eskaz milak eman ziztion eta horrik palaziara gan zen eta dantzatu zen.

AIZKORRIN ZEHAR

Gure inguru honetan mendiz inguratuta bizi garelako edo, aunitzetan mendi hauen edo bertze guztien erranahiaz ez gara ohartzen. Euskal Herrian zehar mendiz mendi ibiltzen hasten garenean, tontorrak ezagutzearekin batera, gure herriak nortasun berezi bat baduela konturatzen gara.

Larunbat euritsu batean AIZKORRI mendate aldera abiatu ginen. Hasmentan, eguraldia zela eta, kezkati genbiltzan baina zorionez igandean denbora xarmanta atera zuen. Mendikate honetan daude Gipuzkoako gailur handienak: hala nola ATXURI (1.556 metro). AIZKORRI, hitz berak erraten duen bezalaxe (AIZKORRI (H)AITZ GORRI (BILUZI, ZURI)), hango arkaitz biluziak hainbat eta hainbat erauntsi jasandakoak dira. Baina haranean, URBIAN, badira artaldez betetzen diren belardiak ere, nahiz eta neguan beste alapide batzuetara joan behar izan.

AIZKORRI aski ezaguna da Euskal Herrian barna, eta horregatik, gu joan ginen egunean ere, jende andana polita zebilen kaskoz kasko. Nahiz eta iheterakoan irri egiteko gogorik ez izan, neke guztien ondoren, gainera iritsitakoan, guztiak merezi zuela nabaritu genuen. Urrunera begiratu eta TXINDOKI, ARALAR, ARABAko lurraldeak, bertze Gipuzkoako zenbait mendi eta abar azaltzen dira gure begien aintzinean.

Gailurretik URBIAKO larreetara jeitsi eta handik beherantz beste ordubete egin ondoren, ARANTZAZUra iritsi ginen. Hau ere benetan ikusgarria. Erroitz sakonen ondoan daude eraikita, hainbeste jende erakartzen duen Frantziskotarren Saidutegia eta zenbait ostatu ere.

Ibilaldi polita egin genuelakoan bukatu genuen eguna eta Euskal Herriko bertze eskualde bat ezagutzeak ematen duen pozaz gainera, ezagupen hortan jarraitzeko gogoa piztu zitzaigun eta hala eginen dugulakoan gaude.

P. REKALDE

Zerua izarrez josia
ikusi baduzu
eta
nere malkoak
irriparrez inguratuak
eta
zure loa
ez bada
arnasez bildu
eta
nere ametsak
ez badizu
esnatzen utzi,

ez ezazu
behin eta berriz
nere biziaz
zure egin
ez ta
lore gorriz
kolkoa lehertu
erazi

ez!
ez ezazu
besteen haizetik
laino bat egin
eta zure lainotik
niregan
ERAUNTSI bat
sor erazi.

e. z.

GAZTAINA

(doinua: Amurizaren «Sentimendua»)

Udazkenean nire biotzak
kanta nahi du gaztainari,
Gure guraso eta arbasoei
emana nahiko afari.
Famili eta lagun bilera
alaitu ditu ugari,
Giro epel ta atsegingarri
danbolin dantzak ekarri.
Monumenturik egitekotan
egiogun ta berari. (bis)

Azal bat eta, bi eta hiru,
baina mami aski bigun,
Itxuraz gogor, jazkera latza,
Hastean aurpegi ilun;
Ego haizeaz ezpainak zabal
eta irripar alaidun;
Bihotz haundiko, esku zabala,
eman, bota, gau ta egun;
Udazkenean jende xeheak,
zugandik zenbat ondasun! (bis)

P. A.

... ni naizena
nik izatea nahi dudana izatera
utzi behar nauzula...
(Artze)

ALKEGIBEREKO JUAN ESTEBAN DE ERRANDONEA

Julio Caro Baroja-ren liburu bat, «Vecindad, familia y técnica», izendakoa irakurtzen ari nintzen. Bere lan gehienetan bezala, gure lehenengo bizimoduetara hurbiltzen ninduen; nire eskuetara aintzineko gizonen arteko harremanak, teknikak, ohiturak, pentsamoldeak ekartzen zizkidan.

(Beratarrak Julio jaunari diogu zorra behar aina kontutan hartzen ote dugu? Bere lana dela medio, ezagutzen ditugu herriko gauza franko, noski.)

Irakurtzen ari nintzen, bada, eta bigarren kapitulua aintzintzean, Alkegibereko zenbait dokumentuen azterketekin topatu nintzen. Nire aitatxi hangoa izanez, interesa handitu zitzaidan. Luis Errandoneak emandako hogeitabederatzi escribuekin baserri horren «istoria» edatzen zuen. Baina, azken aldera, hau aurkitu nuen: «...No terminan aquí los documentos de Alqueguiberea. Pero sí se puede afirmar que los que siguen nos dejan sin cubrir una generación entera. Algo más de cincuenta años después (...) a 4 de junio de 1833 nos encontramos a un Juan José Errandonea. (...)»

Hitz hauek nire baitan nor falta zen jakiteko asmoa biztu zidaten. Ongi dakit edozein dokumentu ofizialetan aursi dezakegula, baina bide zabala alde batera utziz, bidaxka estu, luze eta irriskor bat hartu nahi izan nuen: Berako Francisco de Arandia dendariaren egunkari apokrifoa.

Liburuaren horri orixtak ireki nituen, eta hirurogeita hama-

zazpigarrenean Alkegibereko baserriko jabearekin egindako kontuak agertu ziren, 1817-garren urten hasiz. Justuan behar nuena hutsuneak betetzeko..

Hemendik aurrera dendariaren egunkariarekin uzten zaituztet.

«...Urtia akautzera doa eta alkegibereko Juan Estebaneri zor nizkion 100 errealak eman dizkiot.

Goizean elurra genuen. Santa Barbara zuritua agertu da. Oraindik ere luma batzuek eskautzen zaizkio. Karrikan erori bazala urtutzen da. Lohiak dena oratzen du. Gurdiak ardatzaraino sarten dire.

Momentu batean, Juan Esteabn pasatzen ikusi dut; gurdi edo urka motzan haritz zur bat idi pariarekin zeraman, errestan zoaien puntak aska handi bat idekiz. Sartzeko erran diot kontuak kittatzera. Bizkar gainean zeraman zakua zuritzen hasia zagon. Akuilua ate ondoan utzi eta barrenera pasatu da.

Herrikoetxeak eman zizkidan 100 erreal hoiek ordaindu dizkiot..

Goitik elurrez estaliak direla, ardiak atzo Larungo maldatik jautsi zituela bazkarik ezin arrautuz, zur lanak azkeneko hilaute hunetan utzi tuztela, erran dit. Gero arte, erran, zakua berriz bizkar gainean paratu eta joan da.

Hola, bada, kontuak kittatu tugu...»

Geroago irakur daiteke:

«18919-ko Apilak 28 (...) Alkegibereko Juan Esteban agertu da. Abre gainetik jautsi, atean lotu eta dendan sartu zait. (...) Hamasei errealeko ardoa eraman dit...»

Bi orri aintzineago, 1819ko, Maiatzak 21ean:

«Alkegibereko semeak bi esparzin pare, lau erreal eta zortzi marauritan eraman tu. Aitaz galdetu eta mendian ari dela erran dit...»

«1820eko Maiatzak 23(...) Lehengo egunean Juan Esteban de Errandonea deitu nuen. Gaur etorri zait. Urte batzuetako kontuak kittatu nahi nituen: 283 erreal eta 30 marauri zor nizkion eta.

Zaldia atean utzi du. Kapelua kopeta gainera eroria, blusa beltz garbia, galtzak zapinarekin hartuak eta makil motz bat eskutan sartu da.

Eup! bat bota eta erausian hasi zait. Barrengo gelara eramen eta kontuak garbitu tugu. Berritsokeritan haritzeko gogua zeukan... nik ez horrenbertze; buruhaustez inguratua nago...»

Ondarreko hau aurkitzen dut 1828ko urtarrilak 26ean:

«Alkegibereko Juan Estabanekin egon naiz. Nola erori den gizon hori!

Hain arroa eta idartsua zena bildua koropilatua ikusi dut. Ez zuen gaur erausiko gogorik; bere semeren eriotzak erraustu du, nahiz hogeitabi egun pasatu. Kontuak garbitu nahi zituen. Nik geroko uzteko erran diot, binon, bai zera! Eztut posible izandu.

Hiletarako eramen zituzten zazpi kandel (bi zuri haundi, 15 errealetan, bost ori, 4 errealetan), berrogeita hameka ogi eta lau ardo-pittar pinta (hek 9 erreal eta 34 marauri eta hok 4 erreal eta 24 marauri) eta, azkeneko, bertze edari batzuek, 3 errealetan.

Nik Alkegiberetik ekarritakoak hok ziren:

Taula batzuek (bat zabala, mahaia egiteko, bertzeak meharrak), 28 errealetan.

Aparte, gurdi bat egiteko materiala, 16 erreal eta firrelitarakoa, bertze 6 erreal gehiago; denetara 50 erreal...»

Hau zen Juan Esteban de Errandonea, Julio Caro Barojari falta zitzaion gizona. Honek dioenez, 1833garren urtean bertze bat agertzen da Alkegibereko jabe bezala: Juan Jose Errandonea, behar bada etxeko alabarekin ezkondua, gure Juan Estebanen alabarekin. Noiz hil ote zen jabe zaharra? Dendariaren liburuan ez da argi agertzen, baina 1830ko, Maiatzak 5ean, Alkegiberekoak hiletarako bezalako erosketak egiten dituzte: Tamaina guztietako kandelak; Juan Estebanen hiletak ote ziren?

LANDAXOKO

TTIPI TTAPAren 1984ko diru kontuak

SARRERAK

—1983n gelditu zen dirua 67.339
—Nafarroako Aurrezki Kutxak zabalkudearengatik ordaindutakoak 30.000
—6.7.8.9.eta 10. argitaratutako TTipi TTaparen sarrerak 147.995
DENETARA 245.334 pzta.

IRTEERAK

—7.8.9.eta 10.argitaratutako TTipi TTaparen irteerak
DENETARA 278.584

LABURPENA

— SARRERAK 245.334
—IRTEERAK 278.584
URTE BUKAERAN ESKAS GENUEN 33.250 pzta.

Urte honetarako diru laguntza, Diputazio, Udal eta bankuei eskatu diegu. 800.000 pztara. ailegatzen den gure aurrekontuarentzat erantzuna eskasa izan dugu (Berak 5.000 pzta. Etxalar 3.000 pezeta, Sunbilla 3.000 pzta, Banco Hispano Americano 3.000 pzta. -- Bertze batzu 10.000 pzta. emandute, adib. Narbarte eta Eroski. Azken berri bezala, Saldias aldeko lau udalek, 20.000 pzta. aldizkaria argitaratu aldiro emanen dutela jakin dugu; exenpluhar zezaten bertze udalak espero dugu, behintzat, erraten dutenbezala, euskara eta herri kulturaren alde baldin badaude.



TTIPI-TTAPA

125 pzta.